

FUNTZIOEN GIDALIBURUA

Azpeitian, 2012ko Abenduan.

SARRERA

Funtzioen gidaliburu hau Azpeitiko ikastolaren Hezkuntza Komunitate osoaren dokumentu bat da. Honek jasoko dituen zehaztasunak Kooperatibaren Estatutuek erabakitakoarekin bat etorriko dira.

Ikastolaren partaide guztien partaidetza antolatzeko ikusten zen beharraren ondorioa da. 2011-12 ikasturtean zehar sortu eta, geroztik, adostasun orokorrez onartutako gidaliburua da.

Idatzi arautzaile praktikoa da eta ikastolaren funtzionamendurako oinarritzko hezkuntza plan guztiak elaboratzera eta betetzera bultzatuko gaituen barne funtzionamenduko sistema bat izan nahi du. Halaber, gure aktibitatearen eraginkortasuna lortzen lagundu nahi du, kide bakoitzak kolektiboan duen funtzioa argituz eta alferrikako nahasketak eta errepikaketak saihestuz.

Batez ere, Ikastolaren partaide guztien partaidetza orekatua eta motibatzailea eragiteko gida bat izan nahi du.

Geroko Barne Erregimenezko Arautegi gaurkotu baten zati garrantzitsua izan daiteke.

Dokumentu hau ez da Hezkuntza Proiektua. Ez ditu zuzenean garatzen hezkuntza lana gida ditzaketen curriculumak eta plangintza operatiboak ere. Ez da hori bere helburua.

Zirriborroa aztertu ondoren, onartua izan da bai Artezkaritza Kontseiluan eta baita Klaustroan ere. Orain Batzarrean aurkezten dugu behin betiko onarpenerako.

Azpeitian, Azpeitiko ikastolan, 2012ko abenduan.

FUNTZIOEN GIDALIBURUAREN ATALAK.

**LEHEN ATALA. AZPEITIKO IKASTOLAREN HEZKUNTZA
PRINTZIO OROKORRAK.**

**BIGARREN ATALA. “IKASBERRI IKASTOLA ELKARTE
KOOPERATIBOA” KOOPERATIVA “ETA AZPEITIKO
IKASTOLA**

**HIRUGARREN ATALA. IKASTOLAREN GESTIO
EGITURA: BATZAR NAGUSIA ETA ARTEZKARITZA
KONTSEILUA.**

**LAUGARREN ATALA. IKASTOLAREN
FUNTZIONAMENDU EGITURA: FUNTZIONAMENDU
ZUZENDARIA.**

**BOSTGARREN ATALA. IKASTOLAREN
FUNTZIONAMENDU EGITURA: FUNTZIONAMENDU
OPERATIBO DOZENTEA.**

**SEIGARREN.ATALA. IKASTOLAREN
FUNTZIONAMENDU OPERATIBOA: ADMINISTRAZIOA
ETA MANTENIMENDUA.**

**ZAZPIGARREN ATALA. IKASTOLAREN ZERBITZU
OSAGARRIAK: GARRAIOA, JANGELA ETA GARBIKETA.**

LEHEN ATALA.

AZPEITIKO IKASTOLAREN HEZKUNTZA PRINTZIOO OROKORRAK

1. Artikulua. Hezkuntza proiektua: Definizioa.

Hezkuntza Proiektua hezkuntza komunitateak ikastolako ekintza ororen bidez lortzeko definituak dituen printzipio nagusiak eta helburu orokorrak eta operatiboak biltzen dituen dokumentua da; halaber, hori lortzeko asmoz, zehazturik diren ekintza eta ebaluaketa-plan multzo osoa.

Arautegi honetan ez da ondorengo ataletako antolaketaren muina eta oinarria den hezkuntza proiektuaren formulazio eta printzipio nagusien izendapen orokorra eman besterik egiten. Azpeitiko ikastolaren hezkuntza proiektu hau beste dokumentu batean dago zabaldurik.

2. Artikulua. Hezkuntza proiektuaren oinarria: Hezkuntza Komunitatea.

Hezkuntza komunitateak finkatzen du Ikastolaren Hezkuntza proiektua, proiektuaren printzipio nagusiak horretarako ahalmena duen Batzar Orokorrak onartzen dituenean.

Hezkuntza proiektua elaboratzeko hezkuntza komunitatearen estamentu ezberdinetako partaidetza ziurtatu behar da, guraso, irakasle-langileak eta ikasle helduenen iritzia kontutan hartuz.

3. Artikulua. Azpeitiko ikastolaren hezkuntza proiektuaren formulazio orokorra.

Azpeitiko ikastola den Hezkuntza komunitateak honela ditu definituak BERE BARRUKO DOKUMENTUAN zabaldu nahi duen hezkuntzaren printzipio nagusiak:

AZPEITIKO IKASTOLAREN EGINKIZUNA- MISIOA

Azpeitiko eta inguruko herrietako ikasle, guraso, profesional eta herritar-laguntzaile talde bat gara, Azpeitiko ikastola osatzen duena.

Euskadiko Autonomi Erkidegoko Euskal Eskola Publikoaren Legearen aurrean, ikastolaren mugimenduari eutsi nahian sortutako erakunde soziala.

Euskal Herriko Eskola Nazionala Urola bailaren sustatu eta aurrera eraman nahi dugu, herrialde guztietako ikastolekin elkarlanean antolatuta, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko partaide izanik. Ikastola hau da elkarte horretako partaide bakarra Azpeitian, beraz, berari dagokio “Azpeitiko Ikastola” izendapena.

Hezkuntza bere osotasunean hartuta, euskara eta euskal kultura garapen eginkizunetan bertako familien mesedetan haur eta gazteei zerbitzu bat emateko.

Eskola komunitatearen partaidetza ardatz nagusia izanik, baliabide guztiak ideia horretan oinarriturik antolatzen dugu. Berrikuntza eta esperimentazio prozesuak sustatzea, profesionalen eta gurasoen formazioa, eta hezkuntza arloarekin zein euskal kulturarekin oro har, zerikusirik duen edonolako ikasmaterialgintza propioa sortze lanetan kolaboratzea Ikastolen Elkartean, ondoren ikastolan egoki erabiliz.

AZPEITIKO IKASTOLAREN IKUSPENA.

Ingurukoek gurekiko duten **IKUSPEGI** garbia zabaltzeko ahaleginean honelakoa izatea da gure helburua:

GIZARTEAREN GUREKIKO EZAGUTZA.

- Oro har, herrigintzan Euskal Herriko Eskola Nazionalaren proiektuarekin, eta bereziki Azpeitiko Ikastolaren hezkuntza-kalitatearen hobekuntzarekin konprometitutako taldea.
- Akordiorako, parte hartzeko eta konprometitzeko jarrerak, bai ikasle-guraso eta profesionalen artean eta baita herritarren artean bereziki baloratu eta lortzeari, garrantzi handia ematen dion ikastola.
- Familiei zuzeneko atentzioa eskainiz zerbitzu antolakuntza serioa duen zentroa, beti ere familien behar berriei erantzuteko adi egon eta egokitzen dakiena.
- Azpeitiko herrian (eta ingurukoetan) berrikuntza – eta esperimentazio-ekimenen bultzagile kualifikatua, haur eta gazteen hezkuntza-eremuan zein euskara eta euskal kulturaren garapenean, ikasleen prestakuntza kualifikatuan ospeko ikastola izanik.
- Guraso eta profesionalen etengabeko formazioan konprometitutako taldea.

BERTAKO IKASLE, GURASO ETA PROFESIONALEN IDENTIFIKAZIOA.

- Ikastolaren eginkizun nagusiarekin bat etorri eta konprometitua dauden familia eta profesionalak dituen erakundea.

BESTE IKASTOLEN GUREKIKO EZAGUTZA

- Ikastola barnean eta Ikastolen mugimenduaren egituraketan elkarlanerako interesa eta estimulazioa sortarazten dituen taldea.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ETA ALDERDI POLITIKOEN GUREKIKO EZAGUTZA

- Herriko eta lurralde diferenteetako Administrazioentzat, herri honi dagokion eraikuntza propioa aurrera eramaterakoan hezkuntza eta kulturako ekintzetan Ikastolen Elkarteko ikastolekin batera ezinbesteko taldea.

OROKORREAN

- Ikastola eskuhartzailea, irekia, alaia eta komunikaziorako eta tratuak egiteko gaitasuna duena.

AZPEITIKO IKASTOLAREN BALOREAK.

Gure ikastolaren hezkuntza proiektua ondoko BALOREETAN oinarritzen da.

EUSKALDUNTASUNA: Euskal Herriko hezkuntza eta kulturarekin konprometitutako taldea, bertako familien eta profesionalen beharrianak eta espektatibak kontuan izanik, eta etengabeko hobekuntzarako estrategiak aplikatuz.

AUTOESTIMUA: Norbere buruarekin eta talde bezala gustura sentitu eta bizi-poza adierazten saiatzen den taldea.
Jarrera eta ekintza positiboak lantzen dituen, pertsona banakoari, taldeari eta herriari zuzenduak modu ireki eta zabalean.

AKORDIORAKO JARRERA: Dauden sentikortasun anitzei zor zaien errespetuaz eta begiruneaz, denei entzunez, pertsonetan oinarrituz eta ez arauetan, irtenbideak akordio bidez bilatzen dituen. Komunikaziorako gaitasunean eta arazoak bideratzeko trebezian zein bizkortasunean bereziki.

ETENGABEKO HOBKUNTZA: Haur eta gazteen, eta beraien familien asebetetzean oinarritzen ditu bere zerbitzuak.
Etengabeko hobekuntzaren bidea jorratuz, esperimantazio-proiektuak eta etengabeko formazioa eta berrikuntza-prozesuak sustatzen, eta dinamizatzen saiatzen da, ikasle, profesional eta gurasoekin.

PARTEHARTZAILEA: Ikastola proiektua herrigintza bezala ulertzen duen taldea eta eragile izanik, inguru zabalean herrigintza bultzatzen duena.
Era berean, beste elkarte/erakundeekiko lankidetzeta joera duena.

Aipatutako printzipio nagusiak Azpeitiko ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren oinarritzat bere indarrez mantentzen dira, bere helburuen eta egitekoen definizioan abiapuntua izanik.

BIGARREN ATALA

AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBA ELKARTEA

ETA IKASTOLA

1. Artikulua. Elkartearen definizioa.

AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBA IKASBERRI ikastolaren titularra den entitate juridikoa da. Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen forma juridikoa izanik, indarrean dagoen Elkarteen Lege, Estatutu propioa eta beste Xedapen osagarrien arabera arautuko da, bai Elkarteen beraren erabakiei buruz ari denean, hala nola, Ondare, Kapital, Bazkideei eta beren Ekarpenaren Eskritura egiteaz eta honelako gaietarako buruzko erabakietan eta bai Azpeitiko ikastolaren arloko erabakiei dagokienean. Gidaliburu honetan agertzen ez diren gaietarako buruzko zehaztapenak Estatutuetan azaltzen dira. Bestetik, Estatutuetatik hartuak dira atal honetan adierazten diren ondorengo artikulak.

2. Artikulua. Elkartearen helburuak, Estatutu propioen arabera.

Sozietatearen helburua da, pertsonen garapen integralean lagun dezaketen kultura, hezkuntza eta dibertimentuzko iharduera mota oro sustatu, garatu, kudeatu eta exekutatzeko, hala nola irakaskuntza arautuko zerbitzuak eskaintzea beren ziklo eta gradu desberdinetan, eta baita bazkideek eska ditzaketen irakaskuntza ez-arautukoak ere, bereziki euskal kulturaren eta euskararen sustapen eta garapenera zuzendutako irakaskuntza, eta beronen txertaketa Kooperatibaren eragin-eremu naturaleko lurraldean.

Era berean, sozietate honen helburu izango da bazkideen eta hauen senitartekoei baliatu ahal izango dituzten kirol iharduera, iharduera sozial eta kulturaletarako zerbitzuak eskaini eta sustatzea horien denbora libre edo aisialdian, eta baita bazkideei eta hauen senitartekoei Kooperatiba osatzen duten pertsonen kultur garapen integral hobe baterako eskainiko zaizkien irakaskuntza kultural orokorreko zerbitzuak ere.

Arestian deskribatutako iharduera horiek egiteko, Kooperatiba beharrezko elementu guztiez hornitu ahal izango da, hala nola bere helburu soziala ahalik eta ongien betetzeko ekipo egokiez.

Azpeitiko ikastolaren gestio eta funtzionamenduari buruz ari denean, III. Atalean xedatzen diren arauen arabera hartuko ditu Hezkuntza-Komunitateak ikastetxeari dagozkion erabakiak.

3. Artikulua. Elkartearen bazkideak.

Hezkuntza komunitatearen partaidetzak Ikastolaren garapenean duen garrantzia kontutan harturik, bereziki nabarmentzen dugu atal honetan Elkartearen bazkideak osatzen dutenen zehaztasunak eta beren erabakietan parte hartzeko eskubideak.

Estatutuen 6. Artikulua.— Bazkide izan daitezkeen pertsonak

Estatutuetan seinalatzen diren baldintzak betetzen diren heinean, Kooperatibaren helburu soziala osatzen duen ihardueraren bazkideak izan daitezke:

1. Bazkide erabiltzaileak.

- a) Famili guraso edo famili buruak.
- b) Ikasleen legezko zaintza eta babesa egikaritzen duten ordezkari edo tutoreak, edota ikasleen ordezkariak egiten dutenak eta haien ordezkariak espreski eman zaienak, nahiz pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan hauek.
- c) Ikaslearen gurasoen ezkontza-banaketa edo dibortzioko kasuan, guraso-boterea eman zaion aita edo ama; eta botere hori konpartitua balitz, berriz, ikaslea zaindu eta babesteko ardura eman zaiona.
- d) Gaitasun juridiko nahikoa duten pertsona fisiko adin nagusikoak.

2. Pertsonal irakaslea eta ez-irakaslea, lan-bazkide gisa, baldin eta Estatutu Sozial hauetako hurrengo artikuluan zehaztuko diren baldintzak betetzen badituzte.

3. Bazkide laguntzaileak, Kooperatibaren helburu soziala lortu edo hobetzeko lan egiten edo laguntzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoak. Bazkide hauen multzoa ez da izango bozka guztien ehuneko hogeita hamarra baino gehiagoren jabe, ez Batzar Orokorrean ez Kontseilu Errektorean.

Izan daitezke bazkide laguntzaile, beste pertsonen artean, Kooperatibako lan-bazkide izan gabe pertsonal irakasle nahiz ez-irakaslea osatzen dutenak.

4. Bazkide ez aktibo edo ez-erabiltzaile Kontseilu Errektoreari hala eskatzen dioten bazkide erabiltzaileak eta lan-bazkideak, baldin eta Estatutu Sozial hauetako hurrengo artikuluan finkatzen diren betebeharrak eta baldintzak ematen badira eta biltzen badituzte. Bazkide hauen bozka multzoak ezingo du bozka guztien ehuneko hemeretzia gainditu ez Batzar Orokorrean, ezta Kontseilu Errektorean ere.

4. Artikulua. Azpeitiko Ikastola Ikasberri kooperatiba elkartearen Gobernu Organoak.

Batzar Orokorra eta Artezkaritza Kontseilua dira Elkartearen administrariak.

Hauen erabakiak betebeharezkoak izango dira bazkide nahiz Hezkuntza-Komunitatearen partaide guztientzat.

III. atalean arautzen da Gobernu- Organo hauen osaketa eta funtzionamendua; arautzen ez den aspektuetan berriz, Kooperatiba Elkartearen Estatutuetan zehazten diren arauen arabera jokatu da.

HIRUGARREN ATALA.

AZPEITIKO IKASTOLAREN GESTIO EGITURA: BATZAR NAGUSIA ETA ARTEZKARITZA KONTSEILUA.

1. Artikulua. Azpeitiko ikastolaren egituraren sailak.

Ikastolaren egitura bikoitza da, hau da, Gobernu-egitura eta Funtzionamendu-egitura bereizten dira bere baitan. Funtzionamendu-egitura Gobernu-egituraren dependenzian dago baina bakoitzak badu autonomia bere funtzioen betekizunean.

2. Artikulua. Gobernu-egituraren Organoak.

Ikastolaren Gobernu-organoak Batzar Orokorra eta Artezkaritza Kontseilua dira.

3. Artikulua. Batzar Orokorraren definizioa.

Batzar Orokorra da ikastolaren gobernu-organo gorena.

4. Artikulua. Batzar Orokorraren partaideak.

Kooperatibaren bazkide guztiak dira eskubide beteko kideak. Parte har dezakete ere aita-ama-tutore ez den ikastolaren pertsonala, beti kooperatibaren bazkidea izateko bere borondatea agertu ondoren.

5. Artikulua. Batzar Orokorrerako deialdia eta eraketa.

Batzar Orokorrerako deia Artezkaritza Kontseiluak egingo du eta Kooperatibaren Estatutuen 24. artikuluan zehazten diren xehetasunen arabera eratuko da.

6. Artikulua. Batzartuen eskubideak.

Bazkide guztiak hitz eta boto-eskubidea dute. Botoak Kooperatibaren Estatutuen 26. Artikuluan arabera konputatuko dira.

7. Artikulua. Batzarraren erabakiak.

Batzar Orokorraren erabakiak aktan jasoko dira, Estatutuen 28. Artikuluan zehazten den moduan. Erabakiek, berei dagozkien ondorioak sortuko dituzte, hartuak izan diren momentutik bertatik.

8. Artikulua. Batzar Orokorraren funtzioak.

Organo honen kompetentziek arlo pedagogikoa eta ekonomiko -administratiboa hartzen dituzte beren baitan, arlo horiei buruzko norabide nagusiak ematea eta memoriaren bitartez azalduko diren emaitzen onarpena dagozkolarik.

Kooperatibaren Estatutuen 22. artikuluan agertzen dira Batzarraren eskumenak; ikastolari buruz ari denean, hauek dira zehazki bere funtzionamenduari dagozkion Batzar Orokorraren funtzio nagusiak:

1.-Ikastolaren funtsezko izaera propioa erabakitzea, Hezkuntza-Proiektuaren helburu orokor nagusiak, hau da, Ikastolaren eginkizuna, ikuspena eta balioak eta bere zabalkuntza onartuz.

2.- Ikastolaren helburu nagusiak bete ahal izateko behar diren eginbide, nagusiak bultzatzea; hauek izango lirateke nagusiki:

2.1.Hezkuntza Proiektuaren elaborazioan Batzarkideen partaidetza zainduko da, Artezkaritza Kontseiluak planteatzen duenaren arabera, eta Batzarrak dagokio azken dokumentua onartzea. Bere eskumena izango da ere Funtzioen Gidaliburua eta Barne Erregimenezko Arautegia ontzat ematea.

2.2. Pedagogi arloan, irakaskuntza-mailen, irakastereduen eta, ondorioz, ikastolaren dimentsioaren eta bolumenaren informazioa jasotzea eta onestea.

2.3. Dimentsio eta bolumen horretarako egokiak diren eraikuntza eta instalazioak erabakitzea.

2.4. Estrategia planaren eta Urteko Planaren informazioa jasotzea eta berauek ontzat ematea.

2.5. Urteko aurrekontua eta, memoriaren bidez agertuko den jarduera ekonomikoa onartzea; epe erdiko plan ekonomiko-finantzarioa non inbertsioak eta diru ekarpenak zehaztuko diren, ezagutu eta onestea.

2.6. Ikasturteko hezkuntza memoria, non garatutako ekintzak, emaitza akademikoak eta pedagogia proiektuak azalduko diren, ontzat ematea.

2.7. Arazo bereziki larriak sortzen badira, funtzio aholku-emaile eta erabakitzailea betetzea, gatazka orokorra bada eta Artezkaritza Kontseiluak akordioa lortzea ezinezkoa ikusten badu.

2.8. Estatutuen 22. artikulua Batzar Orokorrari esleitzen dizkion erabakien eskumenak betetzea.

9. Artikulua. Batzarraren antolaketa eta garapena.

Batzarraren antolaketa eta garapenari buruzko arauak Estatutuetan jasotzen direnak izango dira.

10. Artikulua. Artezkaritza kontseiluaren definizioa.

Artezkaritza Kontseilua Batzar Orokorra funtzionamenduko Organoetara hurbiltzen duen Organo ordezkatzailerik eta funtzionala da. Berak gestionatzen du ikastola -- eta, ondorioz, funtzionamendu-mailako zuzendariaren gestioaren kontrol iraunkor eta zuzena egiteko ardura du.

Bere helburu nagusia Hezkuntza Komunitatearen kide guztien atxikipena eta egiazko partaidetza lortzea da, elkarbizitza eta elkarlan egokia eta ikastolaren egonkortasuna eraginez.

Berari dagokio ikastolaren norabide eta eginbide orokorrak erabakitzea, Batzar Orokorrak finkatu dituen printzipio orokorrak jarraituz eta ahalmena du Legeek, Estatutuek eta Araudiek esleitzen dizkioten ekintzak betetzeko.

11. Artikulua. Artezkaritza Kontseiluko osaketa.

12 Kontseilu-kideek osatuko dute Artezkaritza Kontseilua, era honetara banaturik: bazkide erabiltzaileen 9 ordezkari eta lan-bazkideen 3 ordezkari, eta hauetakorik ezean, hiru plaza horiek 3 bazkide laguntzailek beteko dituzte

Zuzendaria Artezkaritza Kontseiluaren kidea izango da baina funtzionamendua egituraren arduraduna denez, hitz-eskubidea izango du baina botorik ez.

Administrazio buruak parte hartuko du Artezkaritza Kontseiluan aholkulari gisa, hitz-eskubidea izanik baina botorik ez.

Kontseiluak erabaki dezake beste edozeinen parte hartzea, era iraunkorrean edo noizbehinkakoa: hauek hitz-eskubidea izango dute baina botorik ez.

Lehendakaria. Langile ez diren bazkide erabiltzaileen artean aukeratuko da.

12. Artikulua. Bileretarako deialdiak.

Hilean behin gutxienez bilduko da Artezkaritza Kontseilua. Deialdia gutxienez hiru egun aurretik egingo du Lehendakariak, eta Idazkariari dagokio gai-zerrenda eta behar diren zehaztasunak erredaktatu eta bidaltzea deialdia egitean.

13. Artikulua. Batzordekideen eskubideak.

Kontseilu-kide guztiek dute ahots eta boto-eskubidea

14. Artikulua. Artezkaritza Kontseiluaren erabakiak.

Artezkaritza Kontseiluak erabakiak hartu ahal izateko, quorum osoaren erdia gehi baten gutxienerako presentzia beharko da, lehendakaria edo lehendakariordea barne. Erabakiak gehiengo arruntez hartuko dira, kasu konkreturen batean besterik proposatzen ez baldin bada, bertan dauden eta ordezkatuak diren kontseilu-kideen botoak kontutan hartuta. Botoetan berdintasuna ematen bada, lehendakariak izango du erabaki-eskumena.

15. Artikulua. Ikastolaren bi egiturak eta beren arteko erlazioa.


Ikastolaren gestioan bi egitura bereizi behar dira: Gobernu-egitura eta Funtzionamendu-egitura.

Gobernu-egitura: Batzarraren agindua jasoaz, Artezkaritza Kontseiluak gestionatzen du ikastola maila honetan. Estatutuetan agintzen diren funtzioetatik aparte, Artezkaritza Kontseilua ikastolaren helburuak bete daitezen arduradun nagusia da, eta ikastolaren norabide nagusiak seinalatu behar ditu, zuzendaritzak egindako planak onartzea dagokio eta plan horien gauzatzea kontrolatu behar du.

Kontseilu honen oinarrizko eginkizuna ikastolaren helburu nagusia den hezkuntzaz arduratzea da.

Funtzionamendu-egitura: Arduradun nagusia zuzendaria izanik, ikastolaren hezkuntza-eginkizuna exekutatzeko eta garatzeko ardura duten guztiek osatzen dute maila hau. Berari dagokio ildo nagusiak garatzeko planak egitea, plan horiek betetzea eta kontrolatuz hobetzea.

Grafikoki adierazita: **Bi egituren arteko erlazioa:**



Lehendakariari, Gobernu-egituraren arduradun nagusia denez, Batzarraren eta Artezkaritza Kontseiluaren arteko lotura dagokion bezala, zuzendariari dagokio Artezkaritza Kontseiluaren eta Funtzionamendu-egituraren arteko zubi lana egitea.

16. Artikulua. Artezkaritza Kontseiluaren funtzioak.

Estatutuetako 31. artikuluan zehazten diren funtzioetatik, hauek dira ikastolaren funtzionamenduari zuzenean dagozkion eta Funtzioen gidaliburuan azpimarratu nahi ditugun Artezkaritza Kontseiluaren funtzioak:

1.-Lehendakaria eta Idazkaria izendatzea, Batzar Orokorrarenak ere beraiek izango direlarik.

2.-Ikastolaren funtzionamenduaren erantzule nagusia den Zuzendari Orokorra aukeratzea eta zuzendariak osatuko duen zuzendaritza taldeko partaideak onestea.

3.-Ekitaldi bakoitzaren balantzea eta kontuen egoera Batzar Orokorrari aurkeztea, honek onetsi dezan; baita hurrengo ekitaldiaren aurrekontua prestatzea ere.

4.-Ikasturtearen ekintzen memoria prestatzea eta Batzar Orokorraren onarpenerako aurkeztea.

5.- Ikastolaren **Plan Orokorrean:**

- a. Ikastolaren Eginkizuna, Ikuspena eta Erakundearen balioak definitu eta onartzea.
- b. Hezkuntza Proiektuaren elaborazioan parte hartu eta onartzea.
- c. Plan Estrategikoa eta Urteko Plana onestea.

6.1. Arlo Pedagogikoan:

- a. Matrikulazio Plana garatzen parte hartzea.
- b. Ikastolaren pertsonal plantilak onartzea, ikastolaren organigrama eta ratioak onartu ondoren.
- c. Ikastolaren baliabide materialen beharrak aztertu eta hornitzeko planak egitea.
- d. Emaitza akademikoen eta hezkuntzazkoak ezagutu eta, beren garapenaren analisiaren bitartez, ikastolaren helburu orokorrak betetzen direla bermatzea.
- e. Ikastolaren lerro nagusiak garatzen dituzten eskolako eta eskolaz kanpoko aktibitateak onestea.
- f. Eskola egutegia onartzea.

6.2. Arlo ekonomiko - administratiboan:

1. Ergonomia plana: eraikuntza eta instalazio egokiak, eraikuntza, konponketa, erreformak eta garbiketa zaintzea. Altzariak eta ekipamendu orokorra hornitzea.

2. Plan juridiko – laborean:

- a. Pertsonala antolatzea: kontratazioa, beharren analisia, baimen luzeak, eszedentziak eta abar aztertuz eta onartuz.
- b. Funtzioen Gidaliburua elaboratzea.
- c. Barne Erregimenezko Araudia onartzea. Arau akademikoen eta laboralen – puntueltasuna, absentismoa, sari edo zigorren aplikazioa – betekizunari buruzko informazioa jasotzea eta behar diren neurriak erabakitzea.
- d. Langileen lan-egutegia onartzea.

3. Plan ekonomiko – finantzarian:

- a. Ondarea zaintzea.
- b. Inbentarioa eguneratua edukitzea.
- c. Epe erdiko eta luzeko plan ekonomiko eta bideragarritasun planak elaboratzea eta segimendua egitea.
- d. Aurrekontuaren irizpideak finkatzea eta berau onartzea.
- e. Kontabilitatea eta Erregistroak egoki dauden ikuskatzea.

7.-Estatutuen 31. artikulua eta Batzar Orokorrak esleitzen dizkieten gainerako funtzio eta ahalmenak betetzea.

17 . Artikulua. Karguaren epea eta uztea.

Artezkaritza Kontseiluko kontseilariak lau urtetako eperako dira aukeratuak eta berraukeratut izan daitezke beste epe berdinetarako. Bi urtez behin planteatuko da kontseilarien erdia berritzea.

18. Artikulua. Artezkaritza Kontseiluaren Azpibatzerdeak. Definizioa.

Artezkaritza Kontseiluak bere funtzioak bete ahal izateko bi eratako azpibatzerdeak aurreikusten ditu: 1. Kooperatibaren Estatutuek seinalatzen dituen eta kooperatibaren aginduak betetzen direla zaintzeko ardura dutenak. Hauek derrigorrezkoak dira.

2. Ikastolaren Gobernu-egitura osatzeak ezartzen dizkion funtzioak egoki bete ahal izateko antolatzen dituenak, unean uneko beharrei erantzunez. Hauek erabaki daitezke libreki eta ez dute Funtzionamendu-egiturako funtzioetan interferitu behar. Maila honetako funtzioetan lagundu nahi badu, zuzendaritzaren ardurapean ekingo dute.

19. Artikulua. Jagoletza eta Errekurtso Batzerdeak.

Kooperatibaren Estatutuen arabera, derrigorrezkoak dira Artezkaritza Kontseiluaren eginkizunaren betekizuna ziurtatzea helburu duten ondorengo bi batzerde hauek:

1.1. Jagoletza edo Zaintza Batzordea. Estatutuen 40. artikulua zehazten ditu bere osaera, aginte-aldia eta izendapena. Bere informazio-ahalmenak eta jardun-eremua zehazten dituzte 41. eta 42. artikuluek; 43.ak, azkenik, erabakitzen ditu bere eskumenak eta funtzionamendua.

1.2. Errekurtso-batzordea. Estatutuen artikulua bakar batean, 44.ean, ezartzen dira bere osaera eta funtzioak. Artikulu honekin bat etorriaz, honako irizpide zehatzagoak erabiliko dira bertako kideak izendatzerakoan:

a) Lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako guraso ordezkariak izango dira errekurtso batzordeko kide titular eta ordezkakoak.

b) Batzorde hau berritzeko urte bikoitietan maila bikoitietako (LH2, LH4, DBH2 eta DBH4 ko) guraso ordezkariak izango dira errekurtso batzordeko hautagai titularrak, ordezkakoak aldiz bakoitietako (LH1, LH3, DBH1 eta DBH3 ko) guraso ordezkariak. Urte bakoitietan berriz alderantziz izango da, bakoitiak titular eta bakoitiak ordezkoko.

c) Gurasoen ordezkari bat baino gehiago den mailetan, beraien artean adostuko da hautagaitza, ordezkari izendatu berrienari lehentasuna emanaz eta kontuan hartuaz beraien artean egon daitezkeen ezintasunak.

20. Artikulua. Artezkaritza Kontseiluaren azpibatzerdeak. Kontseilu berak era ditzake bere funtzioen betekizuna ahal izateko edo errazteko, unean uneko beharrei erantzunez.

21. Artikulua. Ekonomia Azpibatzerdea.

1. Ekonomia Azpibatzerdearen definizioa.

Artezkaritza Kontseiluak ikastolaren inguruko gai ekonomikoetara buruz hartu behar dituen jokabideak aztertzea, proposatzea eta bideratzea dagokio Ekonomia-batzordeari.

2. Ekonomia Azpibatzerdea: Osaera eta Funtzioak.

2.1. Batzordekideak: Ekonomia-batzordea honela osatuko da:

Artezkaritza Kontseiluko lehendakaria; bera izango da ekonomia batzordearen burua. Honek taldekide batengan delega dezake burutza. Bi taldekide gutxienez, gurasoen ordezkari; horietako bat diruzaina. Jagoletza batzordeko kide bat. Ikastetxeko administratzailea.

Artezkaritza Kontseiluak aukeratuko ditu batzordekideak izango diren ordezkariak; kontseilu-kideek, beren karguak uztearekin batera, utziko dute Batzorde honetako partaide izatea.

2.2. Funtzioak. Ikastetxearen ekonomiarekin zerikusia duen edozein gaitan hartuko du parte; funtzio aholku-emaile du eta ondorengo hauek dira bere zeregin nagusiak:

2.2.1. Ikastetxearen Plan Finantzario- Ekonomikoa (IPFE) planifikatzea eta kudeatzea; prospekzio-ikuspegitik, erakundearen planteamenduarekin koherentea izango den epe luze, ertain eta laburrerako kostuak aztertu eta bere bideragarritasuna bideratzen du. Horretarako:

- a. Finantza-egoera ezagutzen eta erregistratzen du.
- b. Galeren eta irabazien kontua aztertzen du.
- c. Autofinantzazioaren bidetik, bideragarritasun plana egituratzen du.
- d. Planifikatu ondoren, bere jarraipena eta kontrola egiten ditu.
- e. Zerbitzu guztien kudeaketa ekonomikoa betetzen du.
- f. Gestio ekonomiko-finantzariak arduratzen da.

2.2.2. Urteko Plangintza Ekonomikoa UPE): IPFEan aurreikusitako kostuak eta ikastolaren ohizko eta aparteko gastuen kudeaketa UPEren bitartez kudeatzen da. Plan honek eskatzen du:

- 1.- Urteko gastuen eta sarreraren Aurrekontua eta ikasleen kuotak aztertzea eta elaboratzea.
- 2.-Urteko ekitaldi ekonomikoa itxi eta Artezkaritza Kontseiluari bere onarpenerako balantzea eta emaitza-kontua aurkeztea.
- 3.-Urteko txosten ekonomikoa Batzar Orokorrean aurkeztea.
- 4.-Ekitaldi ekonomikoa hileroko kontrolatu eta Artezkaritza Kontseiluari horren berri ematea.
- 5.-Urteko inbertsio-plana prestatu, aztertu eta Artezkaritza Kontseiluari proposatzea.

6.-Edozein kontzepturi dagokion gastu korronteak bideratzea.

7.-Kooperatibako izeneko kontu korronteen sinadura eramatea, bi taldekidek izenpe solidarioa izanik.

8.-Altxortegiko mugimendua hurbiletik jarraitzea.

9.-Behar denean, inbertsioen eta altxortegi-desorekaren finantzaketarako kreditu-kontratazioa Artezkaritza Kontseiluari proposatzea.

10.-Bekei eta berankorrei dagozkien jokabideak proposatzea.

Zeregin hauek eta sor daitezken beste batzuk bideratzeko ikastetxearen administrazio buruaren laguntza izango du; bestetik, delega dezake zenbait ahalmen zuzendari eta administratzailearengan, jardun ekonomikoaren bideratzea errazteko.

3. Batzordearen funtzionamendua.

1.-**Batzordearen burua:** Artezkaritza Kontseiluaren lehendakaria edota berak delegatzen duena. Berak zuzenduko du bilera.

2.-**Diruzaina eta Idazkaria:** Diruzaina Artezkaritza Kontseiluaren bera izango da; idazkaria berriz bereziki aukeratuko dute ekonomia Batzordearen kideek. Kargu hauek ezin dira hutsik utzi eta ez da bi horietako inor izendatuko batzorde-buru.

Diruzainaren zeregina bileren egitaraua prestatzea da, une bakoitzean egokiak diren gaiak aurkeztuz eta batzordeak behar hainbat informazioa izan dezan, proposamen-erabakiak hartzen direla zaintzea.

Idazkariaren zeregina bilerak deitzea eta bilera bakoitzean hartutako erabakien akta jasotzea da. Bilera-akta hurrengo bileran irakurri eta onarpenerako aurkeztuko da. Ondoren, ikastetxearen idazkaritzan gordeko da, dagozkion eranskinekin.

4. Batzordekideen bilerak eta akordioak.

Batzordea hilerio bilduko da gutxienez, eskola-oporretako garaian izan ezik, edo Batzorde Buruak dei egingo balu . Artekarrizta Kontseiluari proposatuko zaizkion akordioak hartzeko, gutxienez botodunen arteko hiru kide bildu behar dira.

Akordioak gehiengo arruntez hartuko dira. Boto-berdinketarik balego, batzorde-buruak erabaki dezake.

22.Artikulua. Pedagogia azpibatzerdea.

1.Definizioa.

Artekarrizta Kontseiluak ikastolaren inguruko hezkuntza eta kultura gaien inguruko norabideak aztertzea, proposatzea eta bideratzea da bere eginkizuna.

2. Pedagogia Azpibatzerdea: Osaera eta Funtzioak.

2. 1. Batzordekideak.

Batzordea honela osatuko da, gutxienez:

- 1.-Artekarrizta Kontseiluan diren irakasleen artean, irakasle bat gutxienez.
- 2.-Bi Kontseilu-kide bazkide erabiltzaileen aldetik, Artekarrizta Kontseiluak aukeratuak.
- 3.-Ikastolako zuzendaria edo Ikasketa Burua.

2.2. Funtzioak.

Azpibatzerde honi Artekarrizta Kontseiluak tratatu behar dituen pedagogia alorreko gaiak lantzea dagokio, lanketa horien berri emanaz kontseiluari, honek onetsi ditzan.

Ondorengo hauek dira bere zeregin nagusiak:

1. Artekarrizta Kontseiluan pedagogiari dagozkion ildo nagusiak zehaztea, ondoren atal honi dagokion Urteko Plana landu eta bertan aurkeztu ahal izateko.
2. Ekitaldiaren betekizun egokiaren jarraipena egitea, bilerak proposatuz edo informeak jasoaz eta unean uneko informazioa emanaz Artekarrizta Kontseiluari.
3. Emaizta akademikoak eta hezkuntzazkoak ezagutu eta, beren garapenaren analisiaren bitartez, ikastolaren helburu orokorrak betetzen diren aztertzea, honen berri emanaz Artekarrizta Kontseiluan.

4. Ikastolaren organigrama eta ratioak definitu ondoren Ikastolaren pertsonal plantilak zehaztu eta Artezkaritza Kontseiluan aurkeztea.
5. Eskola egutegia osatzea.
6. Matrikulazio Plana garatzen parte hartzea.
7. Ekintzen alderdi ekonomikoaren berri ematea Ekonomi Batzordeari, honek azter ditzan.
8. Ikasle eta gurasoen asebetetzea aztertu eta bere berri Artezkaritza Kontseiluan ematea.
9. Ikastolako gurasoentzat hezkuntzaren gaien inguruko saioa bultzatzea edo antolatzea.
10. Ikastolaren lerro nagusiak garatzen dituzten eskolako eta eskolaz kanpoko beste aktibitateak zehaztea.
11. Artezkaritza Kontseiluak gomenda diezazkiokeen pedagogia alorreko beste zenbait gai aztertzea eta informeak idaztea.

3.-Pedagogia Azpibatzerdearen funtzionamendua.

3.1.-**Batzordearen burua:** batzordekideen artetik aukeratua, taldearen dinamika eta koordinazioaren arduraduna da; era berean, batzordearen ordezkaria da Artezkaritza Kontseiluaren aurrean eta beste edozein tokitan.

3.2.-**Idazkaria:** batzordearen antolaketaren ardura, dokumentazioaren zainketa eta bilerak deitzeko egitekoa duen batzordekidea da. Batzorde buruari lagunduko dio bilerak prestatzen eta egitasmoen betekizuna begiratzen. Gainera, bileren aktak jasoko ditu eta onarpenerako aurkeztu.

3.3.-**Batzordekideak:** batzorde honetako partaide bakoitza da. Arduradunek egindako proposamenak aztertu eta Artezkaritza Kontseiluan aurkezteko egokitzea da beren eginkizuna.

4. Bilerak eta akordioak.

Batzordea hilerok bilduko da gutxienez, eskola-oporretako garaian izan ezik, edo Batzorde Buruak dei egingo balu. Artezkaritza Kontseiluari proposatuko zaizkion akordioak hartzeko, gutxienez botodunen arteko hiru kide bildu behar dira.

Akordioak gehiengo arruntez hartuko dira. Boto-berdinketarik balego, batzorde-buruak erabaki dezake.

23.Artikulua. Beste azpibatzordeak.

1. Definizioa. Artezkaritza Kontseiluak, berari dagozkion funtzioak bete ditzan unean uneko beharrei erantzuteko batzorde bereziak antola ditzake; lagundu edo osatu behar duten funtzioaren arabera zehaztuko dira bere antolaketa eta jarduera. Orokorrean, instalazioen jarraipena eta familietako partaidetza bultzatuko duten batzordeak izango dira. Artezkaritza-kontseiluaren ardurapean dauden batzorde hauek guztiek izango dute kontseilu-kide bat, taldearen funtzionamenduaren jarraipena eta kontrolaren ardura eramango duena.

Azpibatzorde hauek bere lanaren berri emango diote Artezkaritza Kontseiluari, honek eskatzen duenean eta gutxienez urtean behin, informe bat zuzenduaz edo eskaturiko azalpenak emanaz honen bilkuretan. bere lanaren berri emanaz. Era berean, beren beharrak, kezkak edo galderak agertuko dizkiote nahiz Artezkaritza Kontseiluari nahiz Zuzendaritzari, behar izanez gero.

2. Azpibatzordeak:

- a. **Mantenua azpibatzordea.** Bere kideek ergonomia planean laguntzen dute, eraikuntza eta instalazioak egoki mantentzeko auzolana eginez.
- b. **Eraikuntza beharretara egokitzeko azpibatzordea:** ikastolaren hazkundeak eragiten duen espazioen urritasuna kontuan edukita, etorkizuneko instalazioak aurreikusten ari den komisia da hau.
- c. **Komunikazioa eta matrikulazioa azpibatzordea: lan talde honek** laguntzen du ikastolak garatu behar duen matrikulazioa plana lantzen. Zuzendaritzako kide batek hartzen du parte honetan.
- d. **Kiroletako azpibatzordea:** kirol elkarte hau eskolaz aparteko ekintzetako ikasleen kirola antolatzen eta egoki gara daitezen arduratzen da. Ikastolaren funtzionamenduaren zereginarekin zerikusia duenez, zuzendaritzako kide batek hartuko du parte azpibatzorde honetan.
- e. **Zerbitzuetako azpibatzordea:** batez ere, jangelaren zerbitzua hobetzen laguntzen duen taldea da. Ikastolaren funtzionamenduaren zereginarekin zerikusia duenez, zuzendaritzako kide batek hartuko du parte azpibatzorde honetan.
- f. **Festen ekintzetako azpibatzordea:** lan talde honen eginkizuna festetako ekintzaz eta txosnen antolaketaz arduratzea da.

Zuzendariarekin koordinatuko da ekintza hauetan ikasleen edo irakasleen partaidetza behar izanez gero.

- g. **Ingurumen mahaia.** Berak zainduko du ingurumen esparruan garatuko diren gaiak eta ekintzak

Eranskina: Artezkaritzaren Funtzionamendu egokirako beharreko aurretiko jarrerei eta baldintzei buruzko kontsiderazio batzuk.

Artezkartza Kontseiluaren kideek errespetatu behar dituzte ondorengo printzipioak:

1. Artezkartza Kontseiluaren helburuarekiko atxikipena eta fideltasuna erakustea, hau da, ikastola eta bere eginkizuna garatzen laguntzea. Hitz egiten denaren konfidentziasuna da lehen exijentzia eta inoiz ez dira erabiliko bertan egiten diren komentarioak esparru horretatik kanpo.
2. Ikastolaren ongia begiratzea beti eta ez interes pertsonalak. Ez da errebindikazio pertsonalak aurkezteko organo bat baizik eta elkarrekin adostuz soluzioak bideratzeko eremua.
3. Ikastola ordezkatzeta eta ez estamentuak: kontuan hartzen dituzte ordezkatuena asmoak baina ez daude nahitaez beren nahi eta erabakiekin lotuak. Ez dira bileratara joaten bere ordezkatuena mezulari huts bezala baizik eta era autonomoan funtzionatzen dute.
4. Langileei ukitzen dieten gai berezietan, hala nola, Lan Hitzarmenak edota horietan jasotzen diren lan baldintzak, gurasoen Ekonomia Azpibatzerdea bilduko da langileen ordezkariekin eta aztertuko dituzte proposamenak eta beren aplikazioa. Dena den, azken erabakia Artezkartza Kontseiluari dagokio.
5. Gobernu-egitura eta Funtzionamendu-egituraren arteko egoera nahasiak saihesten saiatuko dira Artezkartza Kontseiluaren kide guztiak. Kontseilua, gobernuaren mailari dagozkion jardueretara mugatuko da. Funtzionamenduaren mailako jardueretan parte hartzen badute, zuzendaritzak dakiela eta bere dependenzian arituko dira.

IV ATALA

IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDU-EGITURA.

I. FUNTZIONAMENDU ZUZENDARIA

1. artikulua.Funtzionamendu-egituraren bereizketa.

Ikastolaren funtzionamendu-egituran bi alderdi bereizten dira, funtzionamendu zuzendaria eta funtzionamendu operatiboa.

Funtzionamendu zuzendariak ikastolarekiko Gobernu-organoen helburu orokorrak eta norabide nagusiak plan bihurtzea du eginkizun eta, onartuak izanez gero, plan horiek gauzatzea, horretarako antolaketa egokia eginez eta bertako baliabideak behar bezala erabiliz.

Funtzionamendu operatiboak, berriz, plan horien zehaztasunak betetzea du eginkizun.

2. artikulua. Funtzionamendu zuzendaria: Organoak.

Funtzionamendu zuzendariaren maila ondorengo organo hauek osatzen dute:

1.-Pertsona bakarreko organoak: Ikastolaren Zuzendari Orokorra, Ikasketa Burua eta Administrazio Burua.

2.-Organo Kolektiboa: **Zuzendaritza-taldea.**

3. artikulua. Zuzendaria: Definizioa.

Ikastolaren zuzendaria Artezkaritza Kontseiluaren dependentzian dago eta bera da funtzionamendu-egituraren arduradun nagusia. Beraren menpean daude funtzionamendu-arloko ikastolaren organo eta partaide guztiak. Beraren bitartez ematen da gobernu-egituraren eta funtzionamendu-egituraren arteko lotura.

Parte hartuko du Artezkaritza Kontseiluaren bileretan, hitz-eskubidez baina boto-
eskubiderik gabe.

4. artikulua. Gobernu-organoen eta Zuzendariaren arteko harremanak.

Zuzendari orokorrak Batzar Orokorrak edo Artezkaritza Kontseiluak erabakitako helburuak operatibo bihurtu behar ditu, horretarako planak elaboratuz eta onarpenerako aurkeztuz.

Planak onartu ondoren, zuzendariak autonomia izango du plan horiek betearaztean, nahiz eta gobernu-organoei informazioa emateko obligazioa izan. Gobernu-organoei kontrolatu behar dute plan horien betekizuna.

5. artikulua. Zuzendaria izateko baldintzak.

Bere funtzioz, irakaskuntzarako tituluduna dena bakarrik izan daiteke aukeratua zuzendaritzarako eta, ahal dela, barruko pertsonalaren arteko eta ikastolan gutxienez hiru urtetan zehar lanean aritua dena.

6. artikulua. Zuzendaritza-kideen aukeraketa.

1. Zuzendariaren aukeraketa.

1.1. Artezkaritza Kontseiluak aukeratuko du zuzendari Orokorra. Baina aurretik lehenetsiko du kandidatuen sistema erabiltzea.

1.2. Langileen arteko kandidatu batzuk aurkeztuz gero, eta zuzendariaren konpetentziak arlo pedagogikoa eta administratiboa hartzen ditueneguz, egokia izango litzateke arlo horietan diharduen pertsonalak zuzendari orokorraren aukeraketan parte hartzea. Bozketaren ondorioz Artezkaritza kontseiluari emango litzaioke kandidatu bakoitzak atera duen boto kopurua. Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du zein izango den zuzendaria, botoen kopurua erabakigarria izan gabe.

1.3. Kandidaturik aurkeztuko ez balitz, Artezkaritza Kontseiluak izendatuko du zuzendariaren, behar dituen kontsultak egin ahal izango dituelarik.

1.4. Zuzendaria lau ikasturterako aukeratuko da lehen edo bigarren aldirako denean; hirugarrenetik aurrera, hiru urtetarako. Berraukeratua izan daiteke mugarik gabe.

2. Ikasketa Buruaren aukeraketa.

Zuzendari Orokorrek aukeratuko du Ikasketa Burua eta Artezkaritza Kontseiluan aurkeztu, honek onetsi dezan. Zuzendari Orokorrek izendatzen duenez, epe berdinerako izango da aukeratua.

3. Administrazio Buruaren aukeraketa.

Artezkari-tza Kontseiluak aukeratuko du zuzenean Kooperatibaren Administrazio Burua. Honek iraupen jarraitua izango du, baldin eta Artezkari-tza Kontseiluak besterik erabakitzen ez badu.

7. artikulua. Zuzendari-karguaren uztea.

Zuzendariak zuzendaritza utz dezake:

1.-Zuzendari berak eskatuta, bere arrazoiak Artezkari-tza Kontseiluari idatziz azalduz.

2.- Artezkari-tza Kontseiluaren erabakiz. Erabaki hau hartzeko Kontseilukideen gehiengo absolutua beharko da:

a.-Pertsonalak gehiengo absolutuz, hau da, kideen bi herenak horrela eskatzen duelako.

b.-Batzar Orokorrak bere gestioa eta memoria onartzen ez dituelako.

c.-Kontseilukideek berek ikastolaren funtzionamendurako, gehiengo absolutuz, beharrezkoa ikusten dutelako.

8. Artikulua. Zuzendariaren eginbehar nagusiak.

Ikastola planifikatu, planak martxan jarri, plan horien segimendua egin eta Artezkari-tza Kontseiluari eta Batzar Orokorrari informazioa ematea dira zuzendariaren eginbehar nagusiak. Zuzendari Orokorrak du, beraz, funtzionamendu egitura osoaren ardura, nahiz eta funtzioak banatuak izan Ikasketa Buruarekin eta Administrazio Buruarekin.

9. Artikulua. Zuzendariaren funtzio zehatzak.

Honako hauek dira zuzendari orokorraren funtzioak:

1.-Gai orokorrak:

a.-Funtzionamenduarekin zerikusia duten gaietan, ikastolaren kanpoko harremanak bideratzen duten sailetan parte hartzea.

b.-Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza sailen arteko koordinazioa ziurtatzea, Ikasketa Buruarekin harreman egonkorak antolatuz.

c.-Zuzendari Plana elaboratua izatea, ikastolaren epe erdirako helburuak zehaztuz eta bere betekizuna lortzeko elementu guztietan antolatuz.

2.-Erakundearen Planteamendu Orokorra.

- a. Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren aplikazio-plana elaboratzea: Eginkizunaren ideia gakoak Plan Estrategikoan eta Urteko Planean islatzen direla ziurtatzea. Erakundearen balioak Hezkuntza Proiektuan, Urteko Planean, Curriculumetan eta Ikasgelako programazioetan islaturik daudela zaintzea, beren garapena ziurtatuz.
- b. Plan Estrategikoa eta Urteko Plana beren elementu guztietan – helburuak, jarduerak, arduradunak, epeak, adierazleak, baliabideak - elaboratzea, eta betekizunaren kontrola eramatea. Ikasturteko Memoria elaboratzea.
- c. Estamentu ezberdinen assetasuna neurtzeko bitartekoak erabili eta hobekuntza elementuak zehaztea.

3.- Ikastolaren arlo akademikoa.

Bere ardura zuzena da betekizun egokia ziurtatzea, beharreko neurriak proposatuz.

- a. Ikastolako Hezkuntza Formazioaren plana zuzentzea.
- b. Ikastolaren Hizkuntz plana (HIZPRO) betetzen ari dela zaintzea.
- c. Elkarbizitza proiektuaren garapena eta aplikazioa prestatzen den ziurtatzea.
- d. Tutoretzaren bere dimentsio guztietako helburu nagusiak betetzen ari direla bermatzea. Orientazio zerbitzuaren planak ezagutzea.
- e. Curriculumak hiru zehaztapan mailetan zehazten ari direla ikuskatzea. Emaidzak ebaluatzeko helburu orokorrak eta irizpideak finkatzea.
- f. Arlo akademikoa osatzeko ekintza osagarriak gaietako interesen arabera programatuak dauden ezagutzea. Eskolaz kanpoko ekintzak era egokian zabaltzen ari diren ezagutzea.

- g. Hobekuntza eta Berrikuntza ekintzez kezkatzea, ekintzak antolatu eta gauzatzen direla ziurtatuz.
- h. Familien eta ikasleen partaidetza ziurtatzeko egitura antolatzea.
- i. Eskola egutegia prestatzea eta Artezkaritza Kontseiluan onarpenerako aurkeztea.

4.-Azpiegitura-arloan.

- a.-Ikastolako obra, instalazio, altzari eta beste bitartekoen premien programazioa egitea.
- b.-Zerbitzuen azpiegituraren ardura nagusia izatea, nahiz eta zuzendari gerenteak bideratu prozesu horiek:

- .Garraioa.
- .Jangela.
- .Garbiketa.
- .Komunikazioa.

5.-Lan-azpiarloan.

- a.-Pertsonalaren premien aurreikuspena eta pertsonal berriaren ezaugarriak definitzea. Beharreko plantilla Artezkaritza Kontseiluan aurkeztea.
- b.-Barne Erregimeneko Arautegia taxutzea.
- c.-Lan-egutegia prestatzea eta Artezkaritza Kontseiluari onarpenerako aurkeztea.
- d.-Pertsonalaren asistentzia eta puntualtasuna jarraitzea. Hartu beharreko neurriak bideratzea.
- e.-Ikastetxeko langileen ordezkari sindikalekiko harremanez arduratzea.
- f. Kexaz eta erreklamazioez arduratzea.

6.-Azpiarlo ekonomikoan.

- a.-Aurrekontua egiteko irizpideen definizioan parte hartu eta kontrolaren berri izatea.
- b.-Inbertsioak erabakitzeko beharrak aztertu eta proposamenak egitea.
- c.-Administraritzaren funtzionamenduaren jarraipena egitea.

10. Ikasketa Burua figuraren definizioa.

Ikasketa Burua da zuzendari orokorraren eragile nagusia, ikastolaren alde pedagogikoaren garapenez arduratzen dena. Berari dagokio sail operatiboaren funtzionamendua gertutik bideratzea, zuzendariak ezarriak dituen planak zuzenean betearaziz. Bera da, beraz, zuzendariaren dependentzian izanik, beraren jarraipena ikastolaren alderdi hezitzailea, eta akademikoa zehazki, garatzerakoan.

11.artikulua. Ikasketa Buruaren funtzio zehatzak.

Aspektu orokor batzuk definitzen dira Zuzendaritza taldearen eginkizunen atalean.

1. Gai orokorra:

Proiektu pedagogikoak garatzeko diren antolakuntza-egituren, hala nola, zikloetako koordinatzaileen, mintegien, hobekuntza taldeen eta klaustroaren eragile zuzena da.

2. Arlo akademikoan. Zuzendariarekin kolaboratzen du:

- a. Ikastolako Hezkuntza Formazioaren beharrak jaso eta plana bideratzen.
- b. Proiektuetako eta hobekuntza taldeetako lana zuzentzen; Hizpro taldea, Elkarbizitza taldea, Tutoretza Ekintza Planaren taldea eta IKT taldea.
- c. Mintegietako koordinatzaile nagusia izanik, batez ere curriculumaren garapenez arduratuko da, mintegi ezberdinetako lanak betetzen diren jarraituz. Era berean, garatzen diren ekintza osagarrien programa eta ebaluazioa zainduko ditu.
- d. Orientazio Zerbitzuaren funtzionamenduaz eta saio akademikoen egokitasunez arduratuz, aniztasun programak antolatuak eta garatzen diren kontrolatuko du.
- e. Irakasleen praktika akademikoaren ebaluazioa bideratuko du.

12. artikulua.Administrazio Buruaren definizioa.

Ikasketa Burua Hezkuntza sailean bezala, Bera da Administrazio sailaren eragile nagusia. Atal honek adar bikoitza du: bata, Kooperatiba eta Artezkaritza Kontseilura luzatzen da eta ikastolara eta bere garapen ekonomiko-administratibora bestea. Era berean, dependentzia bikoitza du, nahiz eta egunean zeharreko lanean zuzendariaren dependentzian egon.

13. artikulua. Administrazio Buruaren funtzio zehatzak.

Aspektu orokor batzuk definitzen dira Zuzendaritza taldearen eginkizunen atalean.

1. Azpiegitura arloan.

- a. Ikastolako azpiegiturak eskatzen dituen obra, instalazio, altzari eta ekipamendua beharren balorazioa prestatzea eta jarraipena kontrolatzea.
- b. Zerbitzuen – garraioa, jangela, garbiketa- planifikazioa antolatzea.
- c. Administrazio eremuari dagokion kanpo komunikazioa – eskutitzak, telefonoa eta abar – antolatzea, zerbitzua eraginkorra izan dadin.

2. Arlo ekonomikoan.

- a. Artezkaritza Kontseiluaren agindupean, epe luze, ertain eta laburrerako planifikazioa eta kudeaketa bideratuko dituen Ikastetxearen Plan finantzario-ekonomikoa elaboratzea.
- b. Urteko Plangintza Ekonomikoa kudeatzeko aurrekontua eta bere garapena kontrolatzea.
- c. Inbentarioa eguneratua edukitzea.

14. Artikulua. Zuzendaritza-taldearen definizioa eta osaketa.

Zuzendariaren dependentsian dagoen organo kontsultibo eta kodeliberatzailea da; bertan ikastolaren funtzionamendu-egituraren erabakiak hartzen dira.

Zuzendari Orokorrak, Ikasketa Buruak eta Administrazio Buruak osatzen dute Zuzendaritza.

15. Artikulua. Zuzendaritza -taldearen ahalmen kodeliberatzailea.

Erabakiak hartzeko garaian, taldearen ahalmena kodeliberatzailea da, hau da, bertan erabaki daitezke gaiak, zuzendaritza-kideen arteko adostasunez. Baina, zuzendariaren adostasunik ez balitz, berak du egokia ikusten duen erabakia hartzeko ahalmena.

Zuzendaritza-taldearen erabakiak, beraz, ez dira gehiengoaren bozketaz hartzen, zuzendariak ez baldin badu hala egiteko bereziki eskatzen.

16. Artikulua. Zuzendaritza-taldearen funtzio zehatzak.

Zuzendaritzari dagokio bere kide bakoitzaren eginbeharrak betetzen diren ikuskatzea eta zuzenketa erabakiak hartzea. Honako hauek dira zehazki zuzendaritza-taldearen funtzioak:

1.-Gai orokorrak:

- a. Zuzendari-planaren elaborazioan eta garapenean parte hartzea.
- b. Ikastolaren antolakuntza egiturak planifikatzea., organo bakoitzaren urtean zeharreko proiektua garatuz.

2. Ikastolaren planteamendu orokorra.

- a. Ikastolaren Plan Estrategikoaren elaborazioan eta segimenduan parte hartzea.
- b. Baita Urteko Planarenean.
- c. Estamentu ezberdinen asetahun-neurketa planifikatzea eta hobekuntza ezartzea.

3. Arlo akademikoan.

- a. Urterako planifikatuak diren proiektuen betekizuna, beren epeetan kontrolatzea eta ebaluatzea.
- b. Eskola egutegia elaboratzea.
- c. Ikasle berrien aukeran eta onarpenean parte hartzea.

4. Azpiegitura arloan.

- a. Baliabideen beharrez ohartzea.
- b. Zerbitzuen funtzionamenduaren segimendua egitea.
- c. Ikastolaren barne eta kanpo komunikazio plana egokitzea.

5. Arlo laborlean.

- a. Irakasleen eta pertsonalaren profilak definitzea eta aukeraketa prozeduran parte hartzea.
- b. Lan-egutegia elaboratzea.
- c. Pertsonalaren lanaren egokitasuna jarraitzea.

6. Arlo ekonomikoan.

- a. Beharrak jasotzea eta lehenestea.
- b. Administrazioaren funtzionamendua kontrolatzea.

ERANSKINA. ZUZENDARITZARI ETA BERE INGURUKO KIDEEI BURUZKO ZENBAIT KONTSIDERAZIO, FUNTZIONAMENDUA EGOKIA IZAN DADIN.

Zuzendaritzaren funtzioei buruz hitz egiterakoan, bereizi behar dira **bi aspektu**:

- a. Zuzendaritzaren erantzukizunen eta azken funtzioen definizioa. Horrela adierazten dira gidaliburu honetan nagusiki. Baina bere betekizuna bideragarria gertatzeko, beharrezkoa da lehenestea egitura operatiboaren funtzioen sailkatze konplexua.
- b. Zuzendaritza aipatzean, beraz, nabarmendu behar da antolaketaren garrantzia, erantzukizun horiek bete daitezten: plan estrategikoa eta urtekoa osatzea, bere zabalpen osoan, gaien definizioa, diagnostikoa eta helburuak, jarduera estrategikoak, adierazleak, arduradunak, epeak eta kontrola eta hobekuntza, elementu guzti hauek zehaztuz.

Lehen Kontsiderazioa.-

Zuzendaritza ez da Artezkaritza Kontseiluaren delegatua huts bat eta, beraz, honek ez du interferitu behar zuzendaritzaren funtzioen barruko erabakietan; ekintza-autonomia du, beti A. Kontseiluan onartutako lerro zuzendariak eta planak garatzeko, jakinik Klaustroarekin batera garatutako bere egintzaren berri eman behar duela, kontrol moduan. Bere jarduera ez da ere baldintzatua izango funtzionamendu-egituraren kideetako presioaren ondorioz.

Bigarren Kontsiderazioa.-

Zuzendaritza ez da Artezkaritza Kontseiluko eskubide beteko kidea; hitza eskubidea du baina ez botoarena, bestela:

- .-berak jarriko lituzke lerro zuzendariak eta ildo nagusiak eta onartuko lituzke
- .-berak elaboratuko lituzke planak eta onartu.
- .-bera izango litzateke plan horiek betetzen arduraduna eta parte hartuko luke betekizunaren kontrolean eta bere gestioaren onarpenean.

Horregatik, berak Artezkaritza Kontseiluko garrantzi handiko partaidea izan behar du, bere hitzarekin eta planekin, baina bere autonomia funtzionamendu eremura mugatzen da.

Hirugarren Kontsiderazioa.-

Zuzendaria da bi egituren arteko zubia eta lotura:

1. Bera da Artezkaritza Kontseiluarekin harreman iraunkorrek dituen ildo nagusiak jaso, planak onarpenerako aurkeztu eta horien betekizunaren berri emateko, ebaluatu daitezten. Era berean, Artezkaritza Kontseiluko Lehendakariak eta zuzendariak mantendu behar duten harreman iraunkorra azpimarratu behar da.
2. Zuzendaritzarekin eta organo operatiboekin, bera arduratzen da garatu beharreko planak elaboratzeko, betetzeko eta hobetzeko antolaketaz.

Laugarren Kontsiderazioa.-

Zuzendariak eta zuzendaritzak hiru instrumentu garatu behar dituzte nagusiki:

1. Urteko Plana, Ikastolaren eginkizuna, ikuspena eta baloreak (HP) garatzen dituen Plan Estrategikoari jarraiki.
2. Funtzionamendu-egituraren antolaketa, plan horiek elaboratzea eta betetzea erraztuko duena:
 - a. Lan egutegia (Eskola egutegian gain) ondo definitua: orduen eta eginbeharren banaketa eta lan-modua eta bileren garapena zehaztuz.
 - b. Lan-talde finkatuak (malguak, funtzionalak, eraginkorrak) bete behar den planari edo proiektuari egokituak eta lankide gutxikoak, ahal dela.
 - c. Jarraipen eta kontrol planak oso zehaztuak.
 - d. Egituraren kide bakoitzak badaki zer egin behar duen eta horretarako duen ordu osagarrien kopurua.
3. Eraitzen kontrol eta analisi sistematikoa, proiektu bakoitzarena eta estamentu ezberdinen asetasunarena.

Bosgarren Kontsiderazioa.-

Artezkaritza Kontseiluko kideek ez dute Zuzendaritza taldearen kideak izan behar. Behar beharrezkoa da gobernuaren eta funtzionamenduaren aktibitateak bereiztea eta, horrela, nahasketa saihesten da eta funtzionamendua Artezkaritza Kontseiluko kideen aldateten gorabeheren eraginpean izatea.

Zuzendaritza egoki baterako baldintza nagusiak.

1. Iraunkortasuna eta dedikazioa.
2. Ikastola proiektuarekiko atxikimendua eta fideltasuna.
3. Askatasuna: ez dago ez gurasoen ezta langileen interes partikularren mende.
4. Funtzionamendu-egituraren kideen dedikazioa eta antolakuntza: bizitasuna funtzionamenduan, informazio-bideak definituak norabide bikoitzean eta bilerak eta jarraipena.
5. Dedikazio eta ordainsari baldintza bereziak.

V. ATALA

IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDU-EGITURA

FUNTZIONAMENDU OPERATIBOA

1. Artikulua. Funtzionamendu operatiboaren arloak.

Ikastolaren funtzionamendu operatiboan bi arlo bereizten dira: arlo pedagogikoa eta arlo administratiboa.

2. Artikulua. Sail eta ardura ezberdinak.

a.-Arlo pedagogikoan. Ikasketa Burua da arduradun zuzenena.

Jarduera pedagogikoa sail ezberdinetan banatzen da:

.Haur Hezkuntzan, koordinatzaile bat, etapako buru.

.Lehen Hezkuntzan koordinatzaile bat, etapako buru.

.Bigarren Hezkuntzan, koordinatzaile bat, etapako buru.

b.-Arlo administratiboan.

Administrazio-burua, arlo ekonomiko-administratiboaren buru.

3. Artikulua. Koordinatzaileak.

a. Koordinatzaileak: definizioa.

Etapetako funtzionamendu pedagogikoaren berehalako arduradunak dira eta Ikasketa Buruaren dependentzian daude. Beraiek dira Ikasketa Buruaren eta irakasleen arteko harremanen ardatza.

b.-Arduradun pedagogikoen aukeraketa eta karguen iraupena.

Bere etapako irakasleek aukeratuko dute etapako irakasleen artean eta zuzendariak berretsiko ditu. Zuzendariaren epe berdinerako izango dira aukeratuak. Izan daitezke behin eta berriro berraukeratuak. Etapa ezberdinetako irakasleen antolaketa ezberdina izanik, kontuan izango da bakoitzaren denbora antolatzerakoan.

4. Artikulua. Koordinatzaileen funtzioak.

1. Batez ere, zaindu beharko du hiru alde hauen garapena:

- a. Bere etapari dagokion Urteko Planean erabakitakoa ezartzea.
- b. Curriculumaren bigarren eta hirugarren zehaztaperen mailako plan pedagogikoa betetzea eta hobetze-bidean jartzea etaparen maila ezberdinetan.
- c. Bere etaparako ezarritako tutoretza-plana aplikatzea.

2. Besteak beste, funtzio hauek ere dagozkie:

- a. Etapako formazio osagarriaren beharrak jasotzea eta zuzendariari adieraztea.
- b. Irakasle berrien egokiera eta froga-garaia kontrolatzea.
- c. Mailen, irakasleen eta materien arteko koordinazioa ematen dela zaintzea.
- d. Irizpide pedagogikoen, metodologikoen eta ebaluazio irizpideen aplikazioa aztertzea. Baita diziplina irizpideak ere.
- e. Material pedagogikoaren eta ekipamenduaren beharrak aztertu eta daudenak mailaka banatzea.
- f. Irakasle-ikasle eta tutore-gurasoen arteko gatazka posibleen berehalako artekaria izatea.
- g. Etapako irakasleen bilerak prestatuko ditu eta aktak jasoko direla ziurtatuko du, taldean idazkari bat izendatuz..
- h. Irakasleen asistentzia eta puntualtasuna kontrolatzea.

5. Artikulua. Funtzionamendu-alorreko langileak.

Ikastolan funtzionamendu-alorrean ari diren langile guztien partaidetza ziurtatzeko, bi eratakoak dira funtzionalki biltzen dituen taldekatzeak:

- a.- Langileen bilera. Ikastolaren funtzionamendu orokorrari zuzenean dagozkion Artekariak Kontseiluaren erabakiak eta proposamen partekatzeak.
- b.- Irakasleen Klaustroa. Bere funtzio pedagogikoen ezartzen dituzten gai orokorrak gestionatzeko.

6. Artikulua. Langileen bilerak.

Artekariak Kontseilutik datozen eta ikastola osoari dagozkion erabakiak partekatzeak eta proposamenak adosteko biltzarra da. Informazioa eman eta iradokizunak jasotzea da bere funtzio nagusia. Ikastolaren funtzionamendu orokorrari dagozkion erabakietan ziurtatuko da bertan lanean ari diren eta

ikastolaren nominan dauden langile guztien era honetako partaidetza. Bere izaera kontsultiboa da eta Artezkaritza Kontseiluak deituko du.

1. Ikastolaren ezaugarri nagusiei buruzko erabakietan.
2. Beraingan eragina duten ikastolaren bideragarritasun planetan.
3. Ikastolaren funtzionamendurako garatzen diren dokumentu nagusietan.

7. Artikulua. Irakasleen Klaustroa.

Ikastolan ikasleen hezkuntzan inplikatuak diren irakasle guztiak ordezkaritza bakarrean biltzen duen organo kolegiatua da. Normalean, etapetako antolaketaren bitartez beteko ditu bere funtzioak baina komeni da hiruhilekoan behin gutxienez biltzea, ikastola osoari dagozkion proiektuak eta planak zabaldu edo onartu behar direnean .

8. Artikulua. Klaustroaren funtzioak.

Hauek dira klaustro honen funtzioak:

1. Plan Estrategikoaren eta Urteko Planaren elaborazioaren edukian aktiboki parte hartzea. Halaber, ikastolaren dokumentu nagusien onarpenean.

2.-Pedagogi alorreko arazoei buruz arduratzea:

a.- Bere ardura nagusia Ikastolaren curriculum egitea da, Etapaka, Zikloka edo Mintegien bidez elaboratzen bada ere.

b.-Hobekuntza edo Proiektu taldeetan parte hartu eta egiten den lanaren berri izan eta onartzea. Garatutako proiektu horien aplikazioa zehaztea.

c.-Finkatutako irizpide metodologikoen koordinazioa egin eta behetik gorainoko linea bat erabakitzea. Behetik gorako testuliburuaren edo beste material pedagogikoen jarraipena eta koherentzia ziurtatzea.

d.-Ikasleen ebaluazio eta errehabilitazio-planaren irizpideak finkatzea eta aplikatzea.

e.-Ikasleen orientazioa eta tutoreen eginbeharrak aztertzea.

- 3.- Artezkaritza Kontseiluak hartutako akordioaren informazioa jasotzea.

9. Artikulua. Funtzionamendu-klaustroaren bilerak.

Funtzionamendu-alorreko klaustroa etapaka bilduko da gehienetan, eta osoki, berriz, ikastola osoaren funtzionamenduari dagokion gaietan. Etapatako bilerak zuzendariak edo koordinatzaileak deituak eta zuzenduak izango dira eta Orokorrak, zuzendariak. Bilera horietara joatea derrigorrezkoa da; ez joatea justifikatu egin behar da.

10. Artikulua. Mintegiak: definizioa.

Mintegiak ikastola osoko edo etapa bakoitzeko irakaskuntza mailako arlo konkretu baten edo batzuen arduradunak dira. Ikastola osoari begira antolatutako dira mintegiak eta Ikasketa Buruaren berehalako ardurapean daude; etapa bakoitzeko arlo akademikoari begira antolatutako direnak, berriz, koordinatzailearenean. Bere izaera, akademikoa da bereziki eta beraiei dagokie, beraz, behetik gora segida behar duten curriculumen aspektuak erabakitzea.

11. Artikulua. Mintegien eraketa.

Beren lehen helburua curriculumak era koherentean garatzea denez, aldakorra izango da bere funtzioak betetzeko taldeen eraketa, garaian garaiko premiak ikusirik. Orokorrean, bi izango dira mintegi nagusiak: Zientziak mintegia eta Hizkuntzak mintegia. Beraiei dagokie ikastolaren koherentzia akademikoa, helburuetan, edukietan, eta metodologia eta ebaluazioa irizpideetan.

Beren lanak, berriz, gara daitezke talde ezberdinetan, izan etapak, izan hobekuntza taldeak. Hobekuntza taldeen bitartez antolatutako dira ikastolaren proiektu orokorrak, hala nola, Hizpro, elkarbizitza, tutoretza eta zehar lerroak eta abar. Bestela, etapaka garatutako dira curriculumak, etapa bakoitzak dituen helburu eta garapen ezberdinak kontutan izanik eta etapa ezberdinen arteko lotura zainduz.

Ikasturtearen hasieratik programatuko dute bere eginbeharra, bera elementu guztietan zehaztuz: ikasturteko helburuak, jarduerak, epeak, arduradunak, adierazleak eta kontrola eta hobekuntza.

Ikasketa Burua izango da Mintegien funtzionamenduaren berehalako arduraduna.

12. Artikulua. Mintegien funtzioak: etapetako mintegiak.

Etapetako mintegiek beren sailari dagokion betebeharrak berezia dute eta honako hauek dira beren funtzioak:

- 1.-Etapak bakoitzeko curriculumak bere osagai guztietan definitzea: gutxieneko helburuak, gutxieneko edukiak, irizpide metodologikoak eta ebaluazio irizpideak.
- 2.-Irakasle bakoitzak curriculumak betetzen duen aztertzea, eta ezeztekoan, zergatiak aztertu.
- 3.-Berrikuntzaren ikuspegitik, curriculumak hobetzea. Aniztasunaren programak zehaztea.
- 4.-Ekintza osagarrien programa prestatzea eta bere egokitasuna bete ahala ebaluatzea.
5. Irakaskuntza mailako formazio-beharrak biltzea eta saioak proposatzea.

13. artikulua. Hobekuntza edo proiektuak garatzeko taldeak.

Ikastolak Plan Estrategikoan edo Urteko Planean erabakitzen dituen ikastolako proiektu orokorrak garatzeko antolatzen diren zeharkako taldeak dira hauek. Talde hauek mugatuak dira partaideen kopuruz, erlazionatuak daude zabaldu nahi den proiektuarekin, edo karguz edota gogoz, eta denbora antolatua dute bere eginkizun honetarako.

Plan estrategikoaren gai bakoitzeko lantze-eraketan parte hartzen duten taldearen kideak edota, lan-plana eratu ondoren, garatzeko eginkizun horrekin konprometitzen diren kideak, izan daitezke hobekuntza taldeak osatzen dituztenak, eta planean erabakitako urratsak garatzen saiatzen dira.

Arduradun bat izendatua dute eta idazkari bat. Beren bileren egutegia definitua dago ikasturtearen hasieratik eta proiektua kontrolatzen dute, beharreko laguntza eskatuz. Talde eraginkorrak izaten dira. Koordinatzen dira zuzendaritzarekin eta sailtako beste irakasleekin.

14. artikulua. Estamentuen Partaidetzaren organoak. Gurasoen ordezkariak, Ikasleen Mahaia eta Pedagogia Mahaia.

Nahiz eta ikastolaren barruko ardura nagusia zuzendaritza eta irakasleena izan, beharrezkoa da hezkuntzan inplikatuak dauden estamentu ezberdinen – gurasoen eta ikasleen estamentuak, alegia - partaidetza aktiboa bideratzea. Horretarako hiru organo kolektibo aurreikusten dira: Gurasoen Ordezkariak, Ikasleen Mahaia, eta Pedagogia Mahaia.

15. Artikulua: Gurasoen ordezkariak. Definizioa.

Gela guztietako gurasoen komunikazio-bide zuzena antolatzea egokia izanik, guraso guztiak ordezkatzeko dituzten delegatuak dira, beren arteko bileren bitartez, geletako gurasoen dinamikaz arduratzen direnak, bileren gaiak prestatuz eta guraso guztien ekarpenak jasoz, eta ikastolari bere iradokizunak eta eskabideak zuzentzen dizkietenak.

GURASO ORDEZKARIEN FUNTZIONAMENTUA ETA EGINKIZUNAK

1. Helburuak

- a. Ikastolako guraso guztien artean partaidetza eta elkarlana bultzatzea.
- b. Gelako gurasoen taldeak geroz eta harreman sendoagoak izan ditzan laguntzea.
- c. Jaso dituzten gelako gurasoen gogoak azaltzea.
- d. Jaso duten, ikasleen giroaren berri azaltzea.
- e. Guraso ordezkarien figurak duen garrantzia agerian uztea.
- f. Artezkaritza Batzordea, zuzendaritza eta guraso ordezkarien arteko harremanak sendotzea.

2. Guraso ordezkariak aukeratzeko prozesua

- a. 3-18 urte bitarteko geletan gelako 2 guraso ordezkari egongo dira Hauek azkeneko gelako bileretan aukeratu eta izendapen hauek aktan jasota geratuko dira.
- b. 1-2 eta 2-3 urteko geletan mailako bi guraso ordezkari izango dira. Urte bateko gelan ikasturte amaieran aukeratu da eta azkeneko gelako bileran azalduko da guraso ordezkarien figura zertarako den eta nola funtzionatzen duen.
- c. Gelako ordezkaria 2 urterako izango da eta urtean behin bietako bat aldatuko da. Guraso ordezkarietako batek urte bateko ibilbidea egin izango du berria sartzeko.
- d. Gelan ordezkaria aukeratzekoan gelak berak erabakiko ditu irizpideak.
Borondatez, zerrendaz, bozketaz
- e. Mahaikideak eta beste gela bateko guraso ordezkariak ezingo dira gurasoen ordezkari izan, ardurak irauten duen bitartean.

3. Guraso ordezkarien funtzioak

- a. Guraso ordezkarien taldearen bileretan parte hartzea.
- b. Guraso ordezkarien taldearen bileran gelako bileran azaldu beharreko gai-zerrenda osatzen laguntzea.

- c. Gelako bileran gai-zerrenda azaldu eta bertako kezka eta proposamenak jasotzea.
- d. Guraso ordezkarien taldearen bileran gelako gurasoen iritzia azaltzea.
- e. Gelako gurasoen erreferente izatea.

16. Artikulua. Ikasleen partaidetza Bigarren Hezkuntza sailean. Ikasleen Mahaia. Ikasleen delegatuak Pedagogia mahaian.

Bigarren Hezkuntza saileko ikasleek ikastolaren funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea dute. Partaidetza hori gelako Delegatuen bitartez gauzatuko da, delegatu guztiek ikasleen ordezkari-taldea edo Ikasleen Mahaia osatzen dutelarik.

1. Helburuak.

Ikasleek egunerokotasunean parte hartzeko bidean, ikasle ordezkarien figurari indarra ematea beharrezkoa da. Lehen pausua geletako ordezkariak hautatzea litzateke, baina honetarako beharrezkoa da ikasleek zein funtzio izango dituzten ezagutzea. Honako hauek izan daitezke:

- Gelan eskaerak, kezkak, proposamenak, zuzendaritzak planteaturiko gairen bat aztertu eta bildu tutoretza orduan (zuzendaritzarekin bildu aurreko tutoretza orduan).
- Gelako eskaeren, kezken, proposamenen hauen berri zuzendaritzari zuzenean ematea.
- Zuzendaritzarekin bildu hilean behin (klase orduetan).
- Bilera honetako berri eman gelari tutoretza orduan.
- Ikasleen arteko dinamika sortu: ekintzen antolaketa, ikasleen aldizkaria,...
- Pedagogia Mahaian parte hartzeko gaiak prestatzea.

2. Ikasle ordezkarien hautaketa.

Ikasle ordezkarien hautaketan kontuan izan beharko liratekeen zenbait puntu:

- Gelako 2 ikasle ordezkari hautatzea.
- Lanari jarraipena emateko urte osorako ardura izatea.
- Aipaturiko arduretarako gogoia eta motibazioa izatea.
- Aukeraketarako zenbait irizpide (**eztabaidarako**):
 - Ikasleek boluntarioki beren burua aurkeztu. Ikasle boluntarioek gainontzeko ikasleen oniritzia jaso beharko dute (botoen erdia + 1).
 - Boluntariorik ez balego ikasle bakoitzak 2 izen proposatu paper batean idatzita eta boto gehien dituzten biak izango dira hautagaiak.

- Egokia litzateke bozketaz hautatutakoek ardurari baiezkoa izatea. Hala izango ez balitz botoen araberrako hautagaien zerrendan goraka segi.



3. Ikasle Mahairen bilerak.

Ikasturtearen hasieran finkatuko dira bileren kopurua, baina gutxienez lau izango dira. Bilera hauek ikasleen ordutegiaren barruan egingo dira.

4. Pedagogia Mahairako Delegatuen aukeraketa.

Ikasleen mahaiaren ordezkariak aukeratuko dituzte Pedagogia Mahaira joango diren 4 ordezkari bozketa zuzen eta isilpekoaren bidez. Ordezkari edo delegatu hauek Pedagogia Mahaiko berezko partaideak izango dira, eta beraien bitartez zuzenduko dira ikasleen eta atal honetako 17. Artikuluan aipatzen den Pedagogia Mahaiaren arteko harremanak, ikastalde osoari dagozkion gaiak direnean.

5. Delegatuen funtzioak.

Hauek dira, besteak beste, delegatuek dituzten funtzioak:

- 1.- Ikasleen eta ikastaldearen partaidetza dinamizatzea.
2. Ikastolaren helburu nagusiak garatzeko inizatiba hartzea eta beste sailtako ikasleekin ere ekintzak antolatzea edo aurrera eramaten laguntzea.
- 3.-Taldekako edo mailako ikasleen proposamenak jaso eta elkarrekin jartzea, eta aurkeztu nahi dituzten gaien txostenak egitea, Pedagogia Mahaian agertu ahal izateko.
- 4.- Pedagogia Mahaian nahiz ikastolaren beste alorretan hitz egindakoari buruzko informazioa gelako ikasleei zabaltzea.
5. -Plan Estrategikoan eta Urteko Planean zehaztu daiteke proiekturen bat, ikasleen kolaborazioa exijitu eta bultzatuko duena.

17. artikulua. Pedagogia Mahaia. Definizioa eta hautaketa.

Hiru estamentuen ordezkarien kopuru berdinez osatzen da, eta ikasleen ordezkarien kopuruaren arabera antolatzen da beste estamentuena. Beraz, printzipio gisa onartzen da DBHko 3. eta 4. mailakoak eta Batxilergoko 1 eta 2. mailakoak ordezkatuak izatea; Ikasle delegatu hauek bilduko dira DBH 1 eta 2.

geletako ikasleekin, beren iradokizunak jasotzeko; ikasleen ordezkariak lau izanik, launa ordezkari izango dituzte beste bi estamentuek: lau guraso, gurasoen delegatuen artean aukeratuak eta lau irakasle, bi horietakoak Zuzendaria eta Ikasketa Burua eta beste bi, DBH-Batxilergoa sail horretako irakasleen artean aukeratuak. Batzordea 12 lagunez osatuko da gehienez.

1. Ahalmena.

Funtzionamendu-egituran ari direlarik, Mahai hau zuzendariaren ardurapean bilduko da eta bere ahalmena kontsultiboa da; ez du, beraz, eskolari dagozkion gaietan ahalmen erabakitailerik; hor planteatzen diren gaiak kontuan hartuko dira eta zuzendaritza ahaleginduko da egoki erantzuten.

2. Mahaiaren funtzioak.

Honako hauek dira Mahai honen funtzioak:

- 1.-Saileko eginbehar akademiko eta antolakuntzazkoak elkarrekin aztertzea, helburu eta ekintza berriak proposatuz.
- 2.-Hiru estamentuen arteko elkargunea denez, estamentu bakoitzak bere laguntza ematea, eskolaren eginkizuna bete ahal izateko, guztiak elkarlanean ohituz.
- 3.-Ematen diren emaitzak elkarrekin aztertzea eta sektore bakoitzaren ardurak zehaztea.
- 4.-Emaitzak hobegotzeko hartu beharreko konpromisoak bideratzea.
- 5.-Eskola-orduz kanpoko ekintzak proposatzea eta bideratzen parte hartzea.
6. Ikasleen nahiz gurasoen eta irakasleen kezak eta arazoak elkarrekin jartzea.
7. Elkarbizitza proiektua eguneroko barne nahiz kanpo bizitzan garatzen laguntzea.
8. Tutoretza-saioetako, giza formazio programazioa osatzeko zehar lerroko gaiak proposatzea.

18. Artikulua. Irakaslea: Definizioa.

Irakaskuntza-jardueraren arduradun zuzena da irakaslea, ikaslearen nahiz ikastaldearen ahalmenak estimulatzen dituena. Bere lan-adskripzioa zuzendariari dagokio eta Ikasketa Buruaren ardurapean dago zuzenean.

19. Artikulua. Irakaslearen funtzioak.

Irakaslea, ikastolaren Funtzionamenduaren egituran dago integratua eta hauek dira bere funtzio nagusiak:

1.1. Batez ere, bera da ikasleekin curriculumak gelan egokitzen duen erantzulea, curriculumaren hirugarren zehaztapen mailan erabakirik dagoena garatuz.

1.2. Hezkuntza-irakaskuntzaren ardura beste irakasleekin konpartitzen duen aldetik, berari dagokio:

a.-Bera dagoen saileko helburuak finkatzea.

b.-Mintegi-mailako gaien eta irakasleen lanean era koordinatuan aritzea.

c.-Pedagogia, diziplina eta gaiak giro egokian lantzeko planak eta irizpideak elaboratzea.

d.-Material eta ekipamendu pedagogikoaren beharrak aztertzea.

e.-Ebaluazio eta errehabilitazioaren irizpideak erabakitzea.

1.3.-Duen erantzukizun pertsonalaren ikuspegitik, berari dagokio:

a.-Bere gaiaren curriculumak prestatzea eta eguneratzea.

b.-Gaiaren lanketak eskatzen duen metodologia aztertzea.

c.-Bere gaiaren programazio konkretuak garatzea eta edukien lanketa ikasturtean zehar banatzea.

d.-Erabakitako programazioaz eta metodologiaz ikastorduak ondo prestatuak zabaltzea.

e.-Gelako ordena eta diziplina mantentzea.

f.-Bere gelako asistentzia, jarrera eta ikasketa-prozesua kontrolatzea.

g.-Ikasleekin lortutako emaitzen, gelan gertatutako diziplina eta lan giroa eta hutsune posible guztien ebaluazioa egitea, tutorearekin eta mailako beste irakasleekin.

h.-Ikastolaren eginkizunetan eta ordutegi lektiboaren barruan, ikastolan bertan edo kanpoan, ikasleen ardura edukitzea eta zaintza ziurtatzea.

20. Artikulua. Irakasle-tutorea: Definizioa.

Irakasle-tutorea ikasleen talde baten arduradun zuzena da eta berak kontrolatu eta zaindu behar du bere ikasleen hezkuntza garapena. Zuzendariak onartuak, etapako koordinatzailearen edo Ikasketa Buruaren ardurapean dago zuzenean.

21. Artikulua. Irakasle-tutorearen funtzioak.

Tutoreak era askotako harreman eta funtzioak ditu bere eginkizuna bete ahal izateko. Bere funtzio nagusiak dira:

1. Tutoretza-Planaren elaborazioa, saileko beste tutoreekin batera eta orientazio-zerbitzuaren laguntzarekin; garrantzizkoa bada etapa guztietan, garrantzia berezia du Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta DBHn.

Tutoreak taldearekin garatzen dituen formazio eta harrera berezia planari buruz ari gara. Saio hauek programatu behar dira era koordinatuan eta tutoreek zabalduak. Era honetako gai-multzoak tratatu daitezke horietan:

- 1.1 Gelako jarrerak eta eskaerak akademia eta partaidetza mailan.
 - 1.2. Gelako elkarbizitza giroaren eta taldearen barruko harremanen analisia eta hobekuntza.
 - 1.3. Orientazio profesionala eta ondorengo ikasketen aukeraketa.
 - 1.4. Baloreen eta zeharkako hezkuntza arloen hezkuntza.
 - 1.5. Tutorearen eta ikasleen arteko harreman indibidualen programa.
 - 1.6. Tutorearen eta familien arteko harremanen programa.
2. Dagozkion Ikastolaren elkarbizitza planaren aspektuen betekizuna.
 3. Orokorrean, hauek izango lirateke bere funtzio propioak:
 - 3.1. Etapako koordinatzailearekin, beste tutoreekin batera, koordinatzen ditu, bere saileko hezkuntza eta akademia-helburuak, diziplina-irizpideak eta neurriak eta beste irakasleekin nahiz gurasoekin dituen bilerak.

- 3.2. Beste irakasleekin:

a.-Bera da ikasleen eta irakasleen arteko harremanak hobeagotzeko eta arazoak zuzentzeko lehen bitartekaria.

b.-Bere taldeko ebaluazio-bilerak zuzentzen ditu, ikasleei buruzko informazioa bilduz, irakasleen ebaluazioa bultzatuz eta taldearekiko proposamenak landuz.

3.3. Taldeko ikasleekin:

a.-Bakoitzaren ezaugarriak, bereak eta eskolarrak, ezagutzen saiatuko da.

b.-Emitza akademikoak komentatuko ditu bakoitzarekin, egoera hobetzeko bideak aztertuz eta azaltzen zaizkion arazoetan lagunduz.

3.4. Ikastaldearekin:

a.-Ikastaldearen emaitzak, lana eta diziplina-giroa aztertuko ditu beraiekin, beren egoera hobeagotzen lagunduz.

b.-Taldekideen arteko harremanak eta taldeko giroa zainduko ditu, lagun eta solidaritate-harremanak landuz eta taldea dinamikoa eta harmonikoa izan dadin bultzatuz.

3.5. Orientazio Zerbitzuaren berri emango die behar duten ikasleei, eta beharra duten ikasleen egoera agertuko dio orientatzaileari.

3.6.-Ikasleen gurasoekin.

a.-Seme edo alabaren berri emango die gurasoei, nahiz bakarka, ikasle bakoitzari buruz hitz egiterakoan, nahiz taldeka, ikastaldeari buruz aritzerakoan.

b.-Urtean hiru elkarrizketa izango ditu ikasle bakoitzaren gurasoekin eta bereziki deituko die hizketarako, ikaslearen egoerak hala eskatzen duenean.

c.-Ikasleen hezkuntza gurasoekin elkarlanean planteatzen saiatuko da zertan lagun dezaketen agertuz.

d.-Parte hartuko du ikastolak bere gelako ikasle batekin erabaki edo neurri berezia ezartzen duenean.

3.7. Nota-aktak eta ikasleari dagozkion beste dokumentu akademikoak osatuko ditu, berriz, tutoreari dagokio.

22. Artikulua. Orientazio zerbitzua. Definizioa.

Ikaslearen hezkuntza-prozesuan, hezitzaileei laguntza pedagogikoa eskaintzen die zerbitzua da. Zuzendaritzaren ardurapean dago eta harremanak ditu koordinatzailearekin, Hezkuntza Bereziko irakasleekin, tutoreekin, gurasoekin eta, batez ere, ikasleekin.

23. Artikulua. Orientazio zerbitzuaren funtzioak.

Zerbitzu honen lanak bi alderdi ditu:

1.-Orokorra: ikasle guztiekiko ardura.

1.1. Ikasketa Buruarekin batera, berari dagokio haurra ikastetxean sartu aurreko historiala jaso eta ikaslearen lehenengo informazioa elaboratzea.

1.2. Ikaslearen nortasuna eta jarrerak aztertuko ditu, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan, aplikatuko dituen testen eta froga psikologiko berezien emaitzak aztertuz eta bilduz. Kontutan hartuko ditu irakasleek gaien garapenari buruz pasatzen dituzten frogen emaitzak ere. Beste zikloetan aplikatu daitezkeen beste frogak ere kontrolatuko ditu, emaitza nagusiak ezagutuz.

Lehen bi etapa eta ziklo horietako irakasleekin harreman bereziak izango ditu, beren lana orientatuz eta behar berezia duten haurren errehabilitazioa landuz.

1.3. Bereziki aztertuko ditu Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleak, gelako tutoreak, koordinatzailearen bitartez, eskatzen dion kasuetan; horrelakoetan, haurra hartu, bere arazoak diagnostikatu eta errehabilitazio-moduaren berri emango dio tutoreari.

1.4. Bigarren Hezkuntzako ikasleekin, berriz, harreman zuzena izango du behar den kasuetan, maila honetan orientatzailearen funtzioa beteko duelarik. Tutoreak berak ere agertuko dio beharra, koordinatzailearen bitartez.

2.-Hezkuntza Bereziko geletako antolaketaren ardura.

Hezkuntza Bereziko gelak irekiak dira eta bi aplikazio ezberdin ditu:

2.1.-Batetik, haur integratuekiko arreta berezia izatea, hau da, mugimendurako eta zentzumenekiko akats neurologikoak izan edo adimen-hutsuneak edota afektibitatearen nahasteak eta jokabide desbideratuak azaltzen dituzten haurrei laguntzea.

2.2.-Bestetik, behar bereziak dituzten ikasleei laguntza akademikoa eskaintzea, hau da, oinarrizko ikasketetan porrot egiteko bidean hasiak diren haurrei laguntzea.

Bigarren aplikazio honen ardura gelako irakasleak izango du, gela bereziko irakaslearekin batera.

2.3.-Hala guztiz ere, haur integratuekiko arreta da gela horietako zeregin nagusia eta hauen matrikulazioa ugaritzen doan neurrian, beraiek beteko dute gela horietako ordutegia.

Zerbitzu honi dagokio batez ere haur horien azterketa egitea, eman behar zaien tratamendua programatzea eta beharrezko bitartekoak egokitzea, nahiz berak zuzenean, nahiz haur horien irakaslearen bitartez.

2.4.-Urtero, ikasturterako plana erakutsiko dio zuzendariari irailaren bukaerarako. Hiruhilekoan behin, gutxienez, bilduko da zuzendariarekin, planaren exekuzioa elkarrekin aztertzeko eta ikasturtearen amaieran, ekainaren bukaerarako, arlo honi buruzko memoria idatziko du eta zuzendariari emango dio.

Lan guzti horietan, hezkuntza bereziko beste irakasleen laguntza izango du zerbitzu honek.

24. Artikulua. Ikaslea: Definizioa.

Hezkuntza eta Irakaskuntza-jardueraren subjektu nagusia da ikaslea eta eginkizun horretara zuzentzen dira Hezkuntza-Komunitate osoaren egitasmoak.

25. Artikulua. Ikaslearen funtzioak.

Ikaslearen funtzioak zehazterakoan, bere alderdi indibiduala eta kolektiboa bereizten dira.

Ondoko hauek dira ikasle bakoitzaren funtzio nagusiak:

1.-Lehenengoa eta garrantzikoena, ikastea da; ondorioz, ikaslea arduratuko da:

a.-Eskolako eta eskolaz aparteko ekintzak ahal den ondoen betetzen, ikastolak eskaintzen dizkion bitartekoen emaitza onenak atera ahal izateko.

b.-Klaseetara etortzen eta ikasketa-planak garatu ahal izateko ekintzetan parte hartzen.

c.-Ikastolaren jarduerak garatzeko onartutako egutegia eta ordutegia errespetatzen.

d.-Ikasketarako irakaslearen orientabideak eskatzen eta jarraitzen.

e.-Bere ikaskideek ikasketarako duten eskubidea errespetatzen, beraiekin elkarlanerako jarrera agertuz.

2.-Ikastola barruko elkarbizitzaren arauak bete betean zaintzea; honek zera eskatzen du:

a.-Hezkuntza komunitatearen kide guztien kontzientzia-askatasuna errespetatzea, sinesmenak, uste sendoak eta iritziak, eta aldi berean, bakoitzaren izena begirunez hartuz.

b.-Ikastolaren hezkuntza proiektua, hau da, bere izaeraren definizio nagusia, bere helburuak eta egitura onartzea.

c.-Eraikuntza, instalazioak, ekipamendua eta materiala begirunez zaintzea.

d.-Ikastolaren bizitzan eta funtzionamenduan parte hartzea.



Loiolako Inazio hiribidea 26
20730 Azpeitia- Euskal Herria
Tel:943 15 12 46 – Fax:943 15 17 76
ikasberri@ikastola.net
www.azpeitikoikastola.com

VI. ATALA

IKASTOLAREN FUNTZIONAMENDU OPERATIBOA

ADMINISTRARITZA-SAILA ETA MANTENIMENDUA

1. Artikulua. Administrazio arloa: Definizioa.

Ikastolaren funtzionamendu ekonomiko-administratibo osoa hartzen du bere barruan. Arlo honi dagokio izaera ekonomiko-finantzarioa, juridiko-laborala eta ergonomikoa duten arazoez arduratzea, baita pedagogia arlotik datozen eginkizun administratiboek ere.

Aurretik asignatuak daude zenbait funtzio ekonomiko, bai Batzordearen eta Ekonomia azpibatzordearen funtzioak zehazterakoan (ikus III. ataleko , 16 eta 21 artikulua) baita Administrazio Buruarenak aipatzerakoan ere (ikus IV atala, 13. artikulua).

2. Artikulua. Sail honen osaketa.

Administrazio Buruak eta administrariak osatzen dute administrarritza-arloa.

3. Artikulua. Administrazio Burua.

Bera da arlo honetako arduradun zuzena; iraunkorra du kargua, Artezkaritza Kontseiluak, bere erabakiz edota zuzendariak eskatuta, ez baldin badu kentzen.

Administrarritza-arloan lan egiten duten guztiak bere ardurapean daude eta bera zuzendariarenean, ikastolaren funtzionamenduaren arloan bete beharreko eginkizunetan.

4. Artikulua. Administrazio Buruaren funtzioak.

Arloaren arduraduna denez, honako funtzio hauek ditu:

a.-Bera arduratuko da administrarien lanaren antolaketaz, ordutegia beraiekin zehaztuz, funtzioak banatuz eta eginkizunen betekizuna zainduz.

b.-Beste administrariarekin funtzio hauek bete daitezen zainduko du:

I. Administratiboak:

1.-Ikastetxez Kanpoko harreman administratiboak zuzentzea:

a.-Korreo elektronikoa jaso eta banatzea.

b.-Ikasleen eskola liburuen erregistroa egunean edukitzea.

c.-Leihatila atenditzea.

d.-Telefono-deiak hartu eta banatzea eta administraritzea-saileko kontsultei erantzutea.

2.-Ikasleen dokumentazioa tramitatzea, hau da, matrikulak, ikasleen zerrendak, espedienteak, ziurtagiriak, bekak, zertifikatuak, aktak, estatistikak, eta era honetako dokumentuak. Nota-aktak eta beste dokumentu akademikoak osatzea, berriz, tutoreari dagokio.

3.-Pertsonalaren gestioa egitea:altak eta bajak, kontratuak, jubilazioak eta abar.

4.-Garraioa erabiltzen duten ikasleen zerrendak eguneratuak eramatea, gai honetan autobusetako begiraleak koordinatuz: autobus bakoitzeko kopurueiak, geltokiak...

5.-Artxiboaren ardura izatea:

a.-Ikasberri kooperatibaren dokumentazioa: Estatutuak, eskriturak, aktak, bazkideen zerrendak, partizipazioak eta abar.

b.-Familien, ikasleen eta ikasle ohien datu-basea eta ikastolari dagokion beste dokumentazio administratibo guztia.

II. Ekonomiko-finantzarioak.

1.-Ikastolaren ondarearen egoera eguneratua edukitzea, inbentario eta dokumentazio egokiarekin.

2.-Kontabilitatea eguneratzea eta mantentzea eta auditoriak garaiz burutzea, Batzar Orokorrean aurkeztu ahal izateko.

3.- Aurrekontuak prestatzea eta hiru hilero Ekonomia Batzordearekin aztertu eta Artezkaritza Kontseiluari kontuen berri ematea: galera-irabaziak, Balantzeak, Altxortegia.

4.-Ordainketak gestionatzea:

a. Erosketak tramitatzea eta izakinak eta ordain-peak kontrolatzea.

b. Nominak, Gizarte Segurantzza, IRPF, eta sortzen diren eginkizun finantzari guztien betebeharrak garaiz betetzea.

c. Beste ordainketa guztiak - garraioa, jangela, irteerak, kirolak, kultur ekintzak eta abar - gestionatzea.

5.-Kobrantzak gestionatzea:

Hileroko erreziboak eta beste zerbitzuen –liburuak, irteerak, ekintza osagarriak - kobruak puntual egitea eta itzulien kontrola eramatea. Berankorren jarraipena egin eta, behar denean, Ekonomia-Batzordeari egoeraren berri ematea.

6.-Kutxa eta Bankuekin, erosketa-etxe eta abarrekin harreman arruntak izatea.

7.-Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta udalarekin harremanak edukitzea: ordainketa eskuordetua, diru laguntzak eta abar.

8.- Zuzendariarekin batera, kanpoko zerbitzuekiko negoziaketa-harremanak izatea,; garraioa, jangela, garbiketa...

9.- Ekonomia Azpibatzerdeko bilerak prestatu eta eskatzen den dokumentazioa elaboratzea.

10. Urteko memoria ekonomiko - finantzaria prestatzea.

11. Arlo honekin lotura duten gaietan, Elkartek nahiz zuzendariak eskatutakoa burutzea.

III. Lan arlokoak.

Lan Arriskuen Prebentzioaren arloko lan administratiboa egitea: osasun-frogak bideratzea, zerrendak osatu eta egunak banatzea, lan prebentzioko dokumentazioa betetzea eta abar.

5. Artikulua. Zerbitzu Orokorrak: *Mantentze-azpiarloa* .

Ergonomia azpiarloko eginkizunak betetzen ditu atezainak. Nahiz eta bere ardura era askotakoa izan, administrarritza-arloan kokatzen da bere lana eta, ondorioz, administrarritza-buruaren ardurapean dago.

6. Artikulua. Funtzioak.

Azpiarlo honen eginkizun nagusiak honako hauek dira:

1.-Eraikuntzaren, instalazioen eta altzarien prebentziozko mantenuaz eta konponketa sinpleez arduratzea.

2.-Berokuntza-zerbitzuaz eta beste motorren egoera eta funtzionamenduaz kezkatzea.

ZAZPIGARREN ATALA.

IKASTOLAREN ZERBITZU OSAGARRIAK: GARRAIOA ETA JANGELA.

1. Artikulua. Zerbitzu osagarriak: Definizioa

Ikastolaren funtzionamendurako beharrezkoak izan eta ikasleei beraiei zuzenean eskaintzen zaizkien zerbitzuak dira atal honetan arautzen ditugunak: Garraio-zerbitzua eta Jangela-zerbitzua.

Zerbitzu hauek ikastolan integratuak daude beren funtzionamenduaren aldetik eta, beraz, .zuzendariaren ardurapean.

2. Artikulua. Garraio-zerbitzua: Osaketa.

Garraio-zerbitzuan bi alderdi bereizten dira: autobusaren enpresa-zerbitzua eta autobusetako begiraleak.

3. Artikulua. Autobus-zerbitzua: Kontratazioa eta baldintzak.

Ikastola eta garraio-zerbitzuaren artean kontratu bat berrituko da urtero, ikasturtean zehar egingo den garraio-zerbitzuari buruzko konpromisoa elkarrekin harturik.

Arrazoi berezirik ez izan eta geroago aipatzen diren baldintzak betetzen baldin badira, urtero enpresa berei berrituko zaie kontratua.

Autobus berri bat kontratatu behar denean, ondoko irizpide hauen arabera egingo da:

- a.-Eskatzen diren eskola-garraiorako legezko baldintza guztiak betetzea. (Ikus 6. artikulua)
- b.-Autobusaren baldintzak hobeak izatea: eserlekuen kopurua, autobusaren urteak, egoera materiala.
- c.-Baldintza ekonomikoak hobeak izatea.
- d.-Txoferra euskalduna izatea.
- e.-Enpresa eta txoferrari buruzko informeak aztertzea.

Kontratua autobus konkretu bati buruz izango da eta ez da, beraz, autobus-aldaketarik onartuko, ez baldin bada ikastolaren iritziz molda ezinezko egoera bat gertatzen.

4. Artikulua. Zerbitzu honen betebeharrak.

Ondoko hauek dira autobusetako zerbitzuak bete behar dituen eginbehar nagusiak:

1.-Ikasturtea hasi aurretik, edota urtean zehar aldatu behar izanez gero, ikastolak finkatzen dituen ibilbideak osoki egitea, jartzen diren geltoki guztietan geldituz. Txoferrek ezin dute ez ibilbiderik, ez geltokirik aldatu.

2.-Jartzen diren orduak errespetatzea:

a.-Autobus guztiek iritsi behar dute ikastolara ikastorduak hasi aurretiko ordu laurdenaren barruan.

b.-Ikasturtearen lehenengo egunetan txoferrek ibilbidearen iraupena kalkulatu behar dute eta, ondorioz, zein orдутan hasiko den ibilbidean eta noiz izango den geltoki bakoitzean. Behin orduak erabaki eta guztiei adierazitakoan, erabakitakoak errespetatuko ditu eta ez da lehenago pasako. Era guztietara, autobusetako ikastolaren arduradunarekin batera erabakiko du bakoitzak irteera-ordua.

c.-Haur txikien bidaiei dagokienez, geldirik egongo dira autobusak ikastolan, beren aparkalekuetan, haurrak irteten hasi baino ordu laurden bat lehenago.

d.-Inoiz ez dira ikastolatik irtengo erabakitako ordua baino lehen.

3.-Beste betebehar batzuk:

a.-Ikasturtearen hasieran erabakiko da nor izango den zerbitzua egiten ibiliko den txoferra eta autobusa, eta baldintza horietan oinarrituko da kontratua.

b.-Ikastolarekin kontratatzen duen zerbitzua erabat errespetatuko da ordu eta bidai guztietan; ez zaio ikastolako zerbitzu bat uzterik onartuko, kanpoko beste zerbitzu bat egiteko, ikastolak onartzen dituen arrazoi bereziak ez badira ematen.

c.-Txoferrak oso poliki (orduko 20 km.) ibiliko dira ikastolaren inguruko eremuan; eta martxa lasaian, kanpoan; ez da sekulan abiatuko, atea itxi gabe.

4.-Ikasleekiko harremanak:

a.-Txoferrek jarrera berdina mantendu behar dute beti ikasleekin, gorabehera handiak azaldu gabe.

b.-Ikasleekiko arazoak direnean, autobusetako zaintzailea saiatuko da zuzentzen; arduradunik ez bada, txoferrak berak konponduko du, arazo normala baldin bada; bestela, parte emango dio gero ikastolako arduradunari.

c.-Txoferrak ez du inoiz ikasle bat bere geltokira iritsi aurretik jaitsi eraziko, nahiz eta haren jarrera oso ezkorra izan; puntu hau are garrantzizkoagoa da haur txikienekin.

d.-Arazo baten berri arduradunari eman behar dionean, ez die ikasleen aurrean emango; are gutxiago, eztabaida bizi bat sortuko haien aurrean.

e.-Txoferrak ez ditu bere zerbitzukoak ez diren ikasleak onartuko autobusean, Ikastolako orri batez adieraziko zaio aldatzeko baimen berezia duen.

5. Artikulua. Garraioa eta ordainketa.

1.-Urtero, ikasturtearen bukaeran, erabakiko da hurrengo ikasturteko zerbitzuaren kostea, enprekin horretarako antolatutako bilera berezian.

2.-Era berean, urtero, eta bilera berean erabakiko da egunaren barruko zenbait bidaiaren kostea, ikasleen irteerak direla eta, kilometroko kuota erabakiz.

6. Artikulua. Garraio-zerbitzua eta legezko arauak.

Ikastolak nahiz autobusaren enpresak zehatz-mehatz bete behar dituzte legeak agintzen dituen arau guztiak:

a.-Legez arautzen denaren arabera egokituko da autobuseko ikasleen kopurua.

b.-Autobusak eta txoferrek betebeharrak legalak beteko dituzte: txoferraren baldintzak eta gidari-agiria, autobusaren antzintasuna, errebisioak, eskola-garraiorako baimen bereziak, aseguruak eta abar.

c.-Momentuan momentuko aginduak ezagutu eta legezko aginduak beteko dituzte.

7. Artikulua. Autobusetako begiraleak: Definizioa

Eskola-garraioa dela eta, autobusetako sarrera-irteerak eta ibilbide osoan zehar ikasleak zaintzeko ardura duen pertsonala da; ikastolako langileak izanik, zuzendaritzaren menpean daude.

8. Artikulua. Begiraleen aukeraketa.

Begiralearen aukera Artekarrizta Kontseiluak egingo du edota zuzendariak, Batzordearen izenean.

9. Artikulua. Autobusetako begiraleen funtzioak.

Autobusetako begiraleen funtzio nagusiak hauek izango dira:

1.-Izendatuta duen autobusaren ibilbide osoa zaindu behar du egunero eta bidai guztietan; arduradunaren baimenik gabe, ezin dezake inork autobusez aldatu.

Autobusa erabiliko duten ikasleen zerrendak osatuko ditu, geltokiz geltoki, eta Idazkaritzan utzi; haur gehiegi baldin badago, zuzendariari agertuko dio lehen egunean.

2.-Haur txikienei igotzen eta jaisten lagunduko die; haurrak ibilbidean autobusa hartu edo utzi behar dutenean, autobusaren aurreko atea irekiko da bakarrik; Ikastolan, berriz, bi ateak erabil daitezke, baina begiraleak, behean aurreko atearen parean egonik, ikastolara zuzenduko ditu haurrak. Inoiz ez die haurrei autobusen tartean edota autobusetako lekuan ibiltzen utziko.

3.-Bidaian zehar, haurrak behar bezalako jarreran doazela zainduko du: eserita, patxaran, oihurik gabe eta abar.

4.-Haurrei euskaraz hitz egingo die zaintzaileak: autobusaren barruan, ikasleen artean euskara erabiltzeko giroa sortuko du bereziki.

5.-Inoiz ez du haurra bere geltokitik kanpo jaisten utziko, baldin eta gurasoen ohar berezirik ez badu, ez haurrak eskatuz, ezta zigor moduan ere.

Begiraleak bereziki begiratuko du ez dadila haur txikirik bakarrik gelditu geltokian, jasoko duenik etorri ez delako edo bere geltokian jaitsi ez delako: egoera horretan ikastolara etorriko da berriro haurra, autobusean bertan.

6.-Haurrarekin arazo berezirik sortzen baldin bada, haurrak kasurik egin ez edota jokabide aldrebesa duelako, begiraleak ez du berak neurririk hartuko baizik eta arduradunari adieraziko dio; honek hartuko du beharreko neurria.

7.-Begiralea hezitzailea da; saiatuko da, beraz, haurrak sartzen direnean agurra eskatzen, autobusaren barnean ikasleen arteko harremanak egokitzen, hitz aldrebesak zuzentzen, autobuseko gauzak ondo erabili eta autobusa bera txukun mantentzen.

10. Artikulua. Jangelako zerbitzua: Definizioa.

Eguerditan, sistematikoki Ikastolan bazkaltzen gelditzen diren haurrei ematen zaien zerbitzua da jangelakoa. Zerbitzu hau ikastolaren egituraren integratua dago eta funtzionamenduaren aldetik zuzendaritzaren menpean dago.

11. Artikulua. Bazkarien etxe hornitzailea.

Bazkariak kanpotik ekartzen dira; ikastolak, beraz, urtero egingo du bazkarien etxe hornitzailearekin ikasturterako kontratua, ikasturtean zeharreko zerbitzua eta prezioa nolakoa izango den zehaztuz.

Arrazoi berezirik ez izan eta zerbitzua egokia kontsideratzen bada, hornitzaile berarekin berrituko da urteroko kontratua; estimazio hori egiteko, irizpide hauek izango dira kontutan:

- 1.-Lehen baldintza: Osasun Sailak eskatzen dituen arauak eta baldintzak betetzea eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Erregistro Orokorrean erregistratua izatea.
- 2.-Janarien eta menuen kalitatea.
- 3.-Prezioa.
- 4.-Zerbitzua nolakoa den: bere orduan ekarria, bero, eta abar.
- 5.-Harremanak nolakoak diren: errazak, erantzuleak diren.
- 6.-Gertutasuna: aurreko zenbait baldintzaren garantia bezala.

12. Artikulua. Jangelako Arduraduna: Definizioa. Jangelako zerbitzuak arduradun bat izango du, Artezkaritza Kontseiluak edo zuzendariak aukeratua; beraren menpean daude bertako laguntzaileak; funtzionamenduaren mailakoa izanik, zuzendariaren esanetara. Bere lanaldia momentuan ematen zaizkion funtzioen arabera erabakiko da.

13. Artikulua. Arduradunaren funtzioak.

Ondoko hauek dira arduradun honen funtzioak:

1.-Jangelaren funtzionamendu orokorraren ardura izatea:

- a.-Bazkariak zerbitzatzen dituen etxearekiko funtzionamendu-harremanak.
- b.-Bertako laguntzaileen lana antolatzea:
 - .Bazkariak garaiz eta bero bana daitezen arduratzea.
 - .Mahai ezberdinen begiraletza zeinen ardura den erabakitzea.
- c.-Haur-taldean jolastokien banaketa egitea eta zein laguntzailek zein talde zainduko duen finkatzea. Haurrak zainduak direla jakitea.
- d.-Jantokia jaso eta garbitzeko txandaketak -zein non- erabakitzea.
- e.-Jantokian diren bitartekoak kontrolatzea eta behar diren aurreikuspena egitea: jangaiak, aparatuak, garbigaiak eta abar.

2.-Jangelako zerbitzua dela eta, gurasoekiko harremanak izatea:

- a.-Gurasoek haurra jangelan utzi nahi dutenean, nahiz sistematikoki gelditzeko izan, nahiz momentuko beharra moldatzeko.
- b.-Bazkaltzen duten haurrak egun batean edo epe batez ez direla geldituko adierazteko deitzen dutenean edota arduradunak zergatik ez den gelditzen jakiteko deitzen dienean.
- c.-Jangela dela eta, hurrekin arazoak sortzen direnean.
- d.-Jangelari buruz edozein informazio eman behar duenean.

3.-Zerbitzu honen inguruan hurrekiko gaiak zuzentzea:

- a.-Ikasturtearen hasieran bazkalkideen zerrendak osatzea.
- b.-Egunero haurren faltak kontrolatzea eta ondorengo pausoak ematea: bazkari gutxiago zerbitzatzeko hornitzaileari abisua pasatzea, haurraren hutsune luzea denean zergatia jakitea eta abar.
- c.-Haurrarekin arazoren bat izanez gero, neurriak hartu edota zuzendariari komunikatzea.

14. Artikulua. Jangelako laguntzaileak.

Jangelako zerbitzua eta jangelan gelditzen diren hurren eguerdiko zainketaren ardura duen pertsonala da; jangelako arduradunaren esanetara daude.

15. Artikulua. Jangelako laguntzaileen aukeraketa.

Jangelako laguntzaileen aukeraketa egitea ikastolako Artezkaritza Kontseiluari dagokio edota zuzendariari, Batzordearen izenean.

16. Artikulua. Jangelako laguntzaileen funtzioak.

Laguntzailea hezitzailea da eta saiatuko da, beraz, haurrak Jangelako laguntzaileen funtzioak ondoko hauek dira:

- 1.-Haurrak sartu aurretik, jangela txukuna eta prestatua edukitzea.
- 2.-Hurrei bazkaria ematea eta txikienei bazkaltzen laguntzea.
- 3.-Ahal den neurrian, bazkaria bukatu ondoren eskuak garbiaraztea.
- 4.-Jangelatik kanpo, jangelako haur-taldeak zaintzea, irakasleak haurrak jasotzeko iritsi bitartean; haur txikienekin, jolasak antolatzen saiatuko dira.
- 5.-Jantokiko gauzak jaso eta txukuntzea.
- 6.-Jangelan hurren bat zauritzen bada, lehenengo atentzioa ematea eta arduradunari abisua pasatzea.
- 7.-Haur txikienei komunera joaten laguntzea eta muda aldatu behar bazaie, aldatzen laguntzea.
- 8.-Jangelako laguntzaileak euskaraz hitz egingo die beti ikasleei.
- 9.-Ikasle batekin edo besterekin neurriren bat hartu behar balitz, jangelako arduradunari jakinarazi behar zaio momentuan edo ondoren.
- 10.-Ez da jangelaren garbiketa egiten hasiko, haur guztiak irten arte. Bestalde, ez da haurrik jarriko jangelako lanik egiten.

17. artikulua. Garbiketa-zerbitzua.

1. Garbiketa eta heziketa printzipioak.

Ikastola garbi mantentzea beti izan behar du garrantzi handiko helburu bat, hezkuntza-lana espazio atsegin batean gara dadin eta hainbeste erabiltzeen-haurrak eta helduak – higiena ziurtatzeko. Alde honetatik hartzen du zentzu betea ez erretzeko agindua. Bestetik, heziketaren aspektu garrantzizkoa bada gauzak orden baten barruan lantzea. Ordenaren elementu nagusienetako bat da espazioak, gelak, norberaren materialak eta abar txukun edukitzea.

Horregatik, ikastolako instalazioak erabiltzen dituzten guztien erantzukizuna da ikastola garbi mantentzea; honek bi alderdi hartzen ditu bere barnean: 1. Ahal den gutxien zikintzeko hezteak. 2. Gauzak lurrera botatzen badira, horiek jasotzen ohitzea denok. Orain arte aipatutakoa ikastolako langile guztien eginkizuna da.

2. Garbiketa zerbitzu espezifikoa.

Ikastolak, eguneroko garbiketa egiteko kontratatzen duen kontrata administrazio buruaren ardurapean dago eta, beraz, funtzionamendu-arloko zerbitzu bat da. Ikastolako langile guztiek argi jakin behar dute nola utzi behar diren elementu guztiak – aulkiak, liburuak eta material ezberdinak, garbitasuna errazago burutu dadin.

Bere funtzio nagusiak hauek dira:

1. Ikastola osoa garbitzea beraiekin egindako kontratuak adierazten duen maiztasunez eta sakontasunez. Atariak eta korridoreak, komunak eta jangela, espazio kolektiboak, bereziki txikienek erabiltzen dituztenak, gelak.
2. Kanpoko garbiketaz arduratzea, zakarrontziak egunero hustuz eta kanpoko sailak txukunduz.
3. Gauero etxeetako errebisioa egitea, kanpora ematen duten leihoak itxiz.
4. Kanpora ematen duten ateak ixtea.